



**KOLPEZ
KOLPE**

**Erregimena
bota dezagun!**

**KOLPEZ
KOLPE**

**Erregimena
bota dezagun!**

NAFARROA, 2019KO MARTXOA



Sortu

Zuatzu Enpresa parkea
Zuhatzu kalea, Easo Eraikina, 4 behea.
20018 Donostia (Euskal Herria)
www.sortu.eus

Lege gordailua: SS-314-2019



aurkibidea

1. 1978KO ERREGIMENA VERSUS ASKAPEN EGITASMOA NAFARROAN. IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

1.1 Sarrera: idazki honen helburuak

1.2. Nafarroako gaur egungo egoera ikuspegi estrategikoaren arabera aztertze gakoak: bizi garen aldaketaren dimentsio estrategikoa kokatuz

A. Berehalako erronketatik harago joan gabe ez dago mundua aldatzerik

B. Atzera begiratu, aurrera begiratu ahal izateko

D. Erregimena ulertu, erregimena gainditu ahal izateko

E. Ezker abertzalearen estrategia egokitzapena Nafarroan

F. Titanic erregimena aldaketaren icebergaren kontra

2. ERREGIMENAK EGUN DUEN ERROTZEA NEURTZEKO BEGIRADA: AZKEN URTEETAKO BALANTZE LABURRA

2.1. Ikuspegi sozioekonomikoa

2.2. Estatu gintzen talka

2.3. Nortasun politikoa

2.4. Bazterkeria politikei, berdintasunari eta herri mugimenduari so eginez

3. DESERAIKUNTZAREN NORABIDEAN HAINBAT ONDORIO ESTRATEGIKO

1. 1978ko erregimena versus askapen egitasmoa Nafarroan. Ikuspegi estrategikoa

1.1. SARRERA: IDAZKI HONEN HELBURUAK

Idatzi honen bidez Nafarroako egoeraren azterketa egin nahi dugu gure herriaren eta Espainiar Estatuaren arteko aurkamendu historikoaren ikuspegi estrategikotik. Uneko egoeraren azterketetatik harago joan nahi dugu, gatazka hori zertan dagoen zorrotasunez arakatu, indar harremanak neurtu eta joera nagusiak identifikatzeko.

Gure askapen strategiaren errotiko egokipena egin dugu azken urteotan, borroka ziklo berria urratsez urrats gorpuzten ari garelarik. Aldaketa honek eragin zuzena izan du dagoeneko Nafarroan eta espainiar Erresumarekiko lehian, baita ezker abertzalearen baitan ere, jakina. Egokipenaren gakoetako bat lurralde korapiloak askatzeko bide berrien irekiera eta garapena den heinean, ahalegin berezia egin behar dugu Nafarroa Garaian estrategia fintzeko, eta horrek derrigorrez eskatzen digu orain arteko ibilbidearen eta egoeraren azterketa zorrotza egitea, momentuko argazkian gelditu gabe.

Berriki hil den Erik Olin Wrightek idatzi zuenez, ezinbestekoa da errealtatearen diagnostiko zorrotza egitea, alternatiba bideragarriak ekoiztea eta eraldaketaren oztopo, aukera eta dilemak ulertzea. Hori egiten lagundu nahi du txosten honek. Horregatik, 2019ko hasierako testua izanik ere, tenore zehatz hau gainditzeko asmoa dugu, aipatu antagonismoan 78ko erregimenaren inguruko lehiak duen zentraltasuna azpimarratuz. Desegiten ari gara Foru Hobekuntzaren erregimena? Aurrera egiten ari gara gure helburu estrategikoetarako bidean? Nafarroa aldatzen ari da/eraldatzen ari gara?... Horiak dira erantzun nahi ditugun galderak. Horrenbestez, hainbat atal zehatz aztertuko baditugu ere, irakurketa orokorra lehenetsi nahi dugu, zuhaitzek basoa ezkuta ez dezaten.

Hiru atal nagusi izanen ditu idazki honek. Lehenbizikoan hainbat argipen partekatu nahi ditugu, gogoeta komun honetan beharrezko bezain onuragarriak direlakoan. Bigarrenean gaur egungo Nafarroaren inguruko azterketa zorrotza egingen dugu, 78ko erregimenaren sendotasuna eta al-

ternatiba orokor baten eraikuntzaren arteko lehiaren ikuspegia lehenetsiz. Hirugarrenean, aurretik egindako azterketaren ondorioak azalduko ditugu, errealitatearen ezagutza kritikoa eta gure jarduerak hobetzeko baliagarriak izanen direlakoan.

1.2. NAFARROAKO GAUR EGUNGO EGOERA IKUSPEGI ESTRATEGIKOAREN ARABERA AZTERTZEKO GAKOAK: BIZI GAREN ALDAKETAREN DIMENTSIO HISTORIKOA KOKATUZ

Garrantzi handia eman nahi izan diogu atal honi, berehalakotasunak eta ikuspegiaren mugapenek eragin kaltegarria dutelako garaiko egoeraren pertzepzioan. Izan ere, ez dira aintzat hartzen hainbat elementu: nondik gatozen, duela hainbat urte nola geunden eta azken eztabaidetan egindako gogoeta asko, esate baterako.

Duela 40 urte Argalak erakutsi zigun, batzuek defendatzen zuten bide in-surrekzionalerako baldintzarik ez zegoela aipatuz, helburu estrategikoe-tara unean uneko apustu zehatzen bidez iristen dela, egoeraren inguruko fantasietan erori gabe. Horregatik egin zuen orduko ezker abertzaleak KAS alternatibaren aldeko hautua, eta horregatik egin dugu Nafarroan al-daketaren aldeko apustu sendo eta irmoa. Gure esperientziak eta orohar, munduko ezkerria eta askapenen mugimenduenak erakusten digute gerta daitekeela helburu estrategikoekiko leialtasunaren izenean errealitatearen irakurketa zorrotza bazterzea, gogoak eta errealitatea nahasiz, fase bakoi-tzeko erronkak desitxuratuz. Akats handia da eraldaketa aukerak gutxies-tea, uneko egoera mugiezin gisa harturik, iraganean ezinezkotzat hartu-tako gauza asko lortu ditugulako, aipatu Nafarroako aldaketa, esaterako. Baina akats handia litzateke, halaber, adorez jardunez gero edozer lortzen ahal dela pentsatzea. Gure helburua posiblearen mugak gainditzea da, bai-na oinak lurrean beti, ez baitago jauzi egiteko beste modurik!

Azterketa oro amaraun kontzeptual batean oinarritzen da, eta guk saio honetan erabiliko duguna azaldu nahi dugu mamira heldu aitzin. Izan ere, zertaz ari gara ikuspegi edo oroimen estrategikoez aritzean? Zergatik lehenetsi erregimen kontzeptua? Nola neurtzen ahal dugu 2015tik aurrera abiatutako aldaketa instituzionala? Zeinen arabera aztertzen dugu zer den bideragarria une historiko zehatz batean? Nola berezi fantasia eta eraldake-ta ausarten bultzada?

Bestela esanik, aukera hau baliatu nahi dugu trebakuntza ahalegin bat elkarrekin egiteko, geure azterketa tresnak hobetu eta inoiz baino beharrezkoago dugun ikuspegi estrategikoa lantzeko.

A. Erronka inmediateatik haratago joan gabe ez dago mundua aldatzerik

Eguneroko erronkei erreparatzeko beharrak begirada luzea lainotzen du sarritan, zaila baita azterketa sakonerako aukerarik topatzea etengabeen arreta eske datozen erronka handien menpe. Hau nabarmena da egungo nafar ezker abertzalean, alde batetik inoiz baino ardura instituzional handiagoei egin behar baitiegu aurre, elkarlan esparru anitz eta konplexuetan, gainera, eta bestetik, indar korrelazioa aldatzeko inoiz egin dugun saiorik ausartenean gaudelako sartuta, noiz eta borroka zikloen arteko trantsizio bidean gabiltzalarik.

Nozitu ditugu egoera zailagoak, ilegalizazioen uneetan edo errepresio eraso bortitzen artean, adibidez, baina gaur egun erronkak biderkatzen eta konplikatzen dira; duela hainbat urte arriskugarriagoa zen –orain baino– ezker abertzaleko militantea izatea, orain –orduan baino– zailagoa da, ordea, aurrean ditugun erronken kudeaketaren zailtasunak ugaltzen direlako eta berehalako beharrek inoiz baino eragin handiagoa dutelako, besteak beste.

Berehalakotasunaren tirania bereziki kaltegarria da gure garai likido edo gaseoso honetan, zeinean berrienaren menpe bizi baikara, kontsumoaren bizkortasunaren logika antsietatesortzailea bizitzaren maila guzietara zabaldu delako, politikagintzara barne.

Sare sozial birtualek ongi adierazten dute bizkortasun horren zama: edozein ergelek txio bat idatzi eta egitura politikoak urduritzen dira, mezua zirkuitu erabat itxietatik atera ez bada ere. Gaur egun, ekaitz handiak leheritzen dira... ur edalontzietan! Edozein unetan ikusten dugu aski dela ñabardura batekiko desadostasuna ildo politiko batekin hausteko. “Aldaketa ez bada.... ez da nire aldaketa” zenbatetan aditu edo irakurri dugu? Duela 30 urte inori ez zitzaion burutik ere pasatzen ezker abertzalearekiko atxekimena kolokan jartzea Jon Idigorasen esaldi batekin ados ez egoteagatik. Gaur berriz, uneoro gertatzen da.

Azterketa sakon eta zorrotzaren orde z uneko beroaldia nagusitzen da, dena arrapaladan interpretatu eta korrika baloratu behar da; batzuetan, gertatu

baino lehen. Tamalez, gu ez gaude joera orokor horien aurrean txertaturik, eta nahi baino gehiagotan gurpil horietan bukatzen dugu guk ere korrika, kateatuta, arnasa ezin hartuz. Errealitatearen aniztasunaren ezagutzaren ordez, gertuenen iritzia ahots orokorraren estadiora altxatzen dugu: jendeak dio... jendea nazkatuta dago... jendeak nahi duena..., militante esparruetatik gure oinarri sozialetako beste esparruetara irekitzen diren lubakiei erreparatu gabe... (zer esan jendarteko beste esparruekiko?). Modan jarri da telefonoa edo tableta eskuetan nahiz ordenagailuaren aurrean kotoiaren froga egitea edozein jarduera edo diskurtsori, hitza eta ekintzaren arteko orekaren beharra ahaztuta. Kritika zorrotza egiteko zilegitasuna ez dago norberaren konpromisoaren eta ekarpenaren baitan, oldarkorki eta konplexurik gabe edozein gauza esateko gaitasunean baizik. Hiperkritizismo horrek, bestelako antza hartu arren, pentsamendu kritikoaren ahultzearen berri ematen digu, eta hainbat pulpitutatik zabaltzen diren mezuek azterketa argudiatuen lekua hartzen dute.

Hau ere neoliberalismoaren suntsipenaren isla dugu, horrela ikustea zaila den arren.

Nonahi atzematen dira arrazionalite neoliberalak pentsamendu kritikoari egin dizkion kalteak, askotan ezkertiarteria penagarrienaren formen bidez mozorrotuta. Nafarroan emandako aldaketen ukapena (Nafarroan lehen bezala gaude, ez da ezer aldatu) dugu horren isla, urrutira jo gabe: joera kritiko zorrotzaren ordez, brotxa lodiaren zakarkeria! Arazo larria dugu joera horiekin, jendarte aldaketa zailtzen dutelako, erraztu beharrean, zapuzketa desmobilizatzailea eta pasotismoa bultzatzen dituztelako benetako iraultzaren izenean, hori bai. Batez ere, oso kutsakorrak direlako, munduko gauzarik errezena baita botoi bat sakatzea.

Egunoroko beharrek itota, aipatu nahasketaren menpe, hiperbentilaturen baten iraina eta aldaketaren aldeko oinarri sozialaren pertzeptzioa ezin bereiziz, ezin etorkizunerako plan ausartik egin, ezta iraganari so eta prozesuen dinamikotasunaz jabetu ere. Eta, jakina, tenporalitatearen ikuspegi integralik gabe, ezin norabide zuzenik aurkitu: nondik gatozen ahantzita, ezin jakin nora eta nola joan. Suak itzaltzea gure zeregin nagusia bilakatzen baldin bada, nondik aterako ditugu etorkizun berria errotik eraikitzeko denbora, indarra eta gogoak?

Uste dugu gogoeta ariketa zintzoa egin behar dugula guzti honetaz, denboraren kontrola berreskuratu eta berehalakotasunaren tiraniari aurre egin

behar diogula, hori baita gaur egun hastapeneko hautu eraldatzailea. Izan ere, ezin estrategia eraldatzailearik aurrera eraman ikuspegi estrategikorik gabe, gertuen dugunak itsututa!

Finean, ikuspegi historikoaren galera da Bloke Sozialistaren erorketaren eta azken hamarkadetako beste hainbat aldaketaren ondorioetako bat. Emantzipazioaren erreferentzia hondoratu edo, bederen, bistatik galdu da jende askorentzat mundu osoan zehar, eredu zehatz horrekiko atxikimendutik harago, gure garaia 1917ko iraultzaren bidearen itxiera gisa agertzen baita, indar eta egitasmo askatzaileen kalterako. Gaur egun hegemonikoa den arrazionalitate neoliberalaren arabera iragana, oraina eta geroa tenporalitate lauan batzen dira, edozein eraldaketa asmoren zerumugak ziren erreferente utopikoak alde batera utzirik. Kapitalismoa esparru bideragarri bakar gisa agertzen da, eta hodeiertzean aurrerapen teknologikoa besterik ez dago. Progresoak hamaika bide har ditzake, hautatzeko inoiz baino aukera gehiago bide ditugu, baina ezin da kapitalismotik at deus ere hautatu, ez baitago ezer ere, eta edozein alternatiba totalitarismoari edota porrotari lotzen zaio.

Esanguratsuki, atzera begiratzea da egoera honetan indartzen ahal den joera. Nostalgia eta iraganaren mitifikazioek utopien lekua hartzen dute. Europako eskuin bortitzenaren hazkundeak honekin badu zerikusirik. Vox-ek bultzatu duen Birkonkistaren mitoaren berpiztea ez da salbuespen bat, nonahi atzematen den fenomenoaren adierazpen zehatza baizik. Izan ere, oro har, eskuineratze orokorra nagusitzen ari da, eraldaketa onuragarriko mundu mailako erreferentzia sendorik gabe gaudelako eta nagusitzen den haserre eta zapuzketaren aurrean batzuek badituztelako erantzunak, atzerakoiak, kaltegarriak, haserrea piztu duen bide beretik doazenak, ados, baina erakargarriak finean.

Horrekin batera, iraultza edo sozialismoa edota komunismoaren mitifikazioak ditugu, borroka moldeak helburu bilakatzen dira, eta erretorika sasi-marxistek estrategia eza edo, gurean, espainiar markoarekiko hurbilpena ezkututzen dute. Badirudi beste batzuek gatazkaren fase politiko-militarra faltan botatzen dutela, agian ez zutelako ezagutu. Hobe zegoen ezker aberzalea bere egitasmo estrategikoa kolokan zegoenean, makilkadak alde guzietatik jasoz, ia klandestinitatean, komunikabideen laguntzaz gorpuzten ari zen zatiketa baten aurrean, egoera kaxkarra izanik ere puruago sentituz? Beste iragankeria dugu hau, azken asmakizun gisa aurkezten bada ere. Ezin etorkizunerako proposamenik egin, eraldaketa orokorra ezinezkotzat

emanik eta purismoan egiten dituzte habiak, konfort esparruak eraikiz eta horietatik egia berdaderoak jaurtiz. Toxikotasun handia darie halako talde sektarioei, eta indar guziak ezker faltsuaren (gaur egun, gure) kontra baliatzen dituzte.

Horiek (besteak beste) dira kapitalismoaren mutazio neoliberalak marraztu dituen subjektibitate kodeak, eta nabarmena da espainiar estatuan duten eragina. Franco hil ondotiko trantsizioaren kulturak tenporalitate laua egituratu du, zeinean ez baitago alternatibarik: marko konstituzionala ala anabasa! Ez dago etorkizunik marko horretatik kanpo, eta horregatik Kataluniako matxinada demokratikoaz diskurtso apokaliptikoak zabaltzen dituzte: jendarte haustura, muturkeria, indarkeria, Europarekiko urruntzea, enpresak badoaz... Aznarrek esan duenez, Katalunia da porrot egin duen komunitatea! Bestela esanik, gidoitik ateratzea katastrofikoa da beti; hori da mezu nagusia, eta oso errotuta dago, tamalez.

Euskarri solido bakarra mitifikatutako trantsizioa da: hau da arrazionalitate neoliberalaren espainiar mutazioa, 78ko erregimenaren sustengu kultural-ideologikoak inspiratzen dituena eta krisia gainditzeko euskarriak eskaintzen dizkiona, edozein eraldaketa egitasmoren oinarriak usteltzen eta kutsatzen. Nabarmena da, esaterako, Podemosek berak gaur egun trantsizioaren ustezko onuren bidetik jarraitzea. Erregimena inoiz baino ahulago dagoenean erregimenaren barnean jarri du bere burua 15Mren adierazpena izan nahi zuen esparruak: agerikoa da noraino iristen den aipatu arrazionalitatearen eragina, hainbat eragileen presioaz laguntzen denean.

Gaur egun, erregimenaren parametroetan kokatu nahi dute eztabaida, azken urteotan piztu zen nolabaiteko haustura demokratikoaren itxaropenaren tenporalitatea baztertuz. Nabarmena da espainiar eliteen kontraofentsiba joko arauak ardazten ari dela. Eta, zalantzarik ez, horren atzean egunerokotasunaren kudeaketa eredu bakoitzeko askoz ere gehiago dago, hor atzematen baita ikuspegi estrategiko argia. Bestela esanda, nabarmena da emantzipazioaren aukera behin betirako itxi eta eliteen botere maila igozteko asmoa, elite horiek badutelako historiaren irakurketa zorrotza.

Beraiek bai, baina eraldaketa nahi dugunoi horixe bera ukatu nahi digute. Horregatik da hain garrantzitsua ikuspegi estrategikoa (hau da, egiten dugunak edota gertatzen denak helburu estrategikoetara hurbiltzen edo urruntzen gaituen aztertzea) inposatu diguten arrazionalitate eta bere koordinada espazial-tenporalak hausten dituelako. Beste aukerak badaudela erakusten

digu, dagoena ez baita egon daitekeen bakarra, indar harreman zehatz baten ondorioa baizik. Horregatik, egungo berehalakotasunetik eta ñabardura zehatzetatik haratago joan beharra dago, azterketa orokorra eta estrategikoa gorpuzteko. Bistan da ez dela gauza bera proposatzen dugun ikuspegiari eustea edo unean uneko hainbat gertaera modu isolatuan aztertzea.

Ezinezkoa da Nafarroan gertatzen ari dena behar bezala aztertzea duela hainbat urte nola zegoen eta nola geunden aintzat hartu gabe. Bestela, zeinen arabera neurtzen dugu errealitatea?

B. Atzera begiratu, aurrera begiratu ahal izateko

Iraganari so, orain? —galdetuko du baten batek, agian. Ezinbestekoa irudititu zaigu, jada idatzia utzi dugunez, Nafarroan bizitzen ari garen aldaketa garaia testuinguru historikoan kokatu behar dugulako. Borroka luze eta gogorren hazien uztaz ari gara, besteak beste, eta zaila da ezeren balioa ongi ezagutzea zenbat kostatu den jakin gabe. Ezker abertzaleak bide zailari egin dio aurre egoera honetara iristeko, gaurko aukerak atzoko borroken ondorioak baitira.

Nola dago Nafarroa gaur egun? Erantzun aunitz ematen ahal zaizkio galdera honi, baina guk geure estatua eraiki nahi dugu, aspaldi erabaki genuelako herri gisako askapena dela bertan klase borroka eta jendarte emantzipazioak hartzen duten forma, eta eraiki nahi dugun estatuaren ikuspegitik osatu nahi dugu erantzuna, bestela esanda, burujabetza-prozesuaren ikuspegitik.

Finean, Nafarroa nola dagoen aztertzeko Espainiarekiko botere-harremanak neurtzea da gakoa.

Estatalitatea egon da beti gatazka horren funtsean, baieztapen gisa (begibistako espainiar/frantziar estatalitatea) nahiz ezeztapen mugatu gisa, nafar estatalitateak era zikiratuan iraun duelako foralitatearen bidez (estatu zatiak), potentzia moduan bada ere. Ikuspegi estrategikoak derrigorrez eskatzen digu atzera begiratzea, Nafarroa Espainiaren Erresuma osatzen ari zen garai historikoan konkistatu eta menperatua izan zela oroitzeko. Hor dago Espainiarekin ditugun subalternitate harremanen jatorria eta gaur egungo egoera, finean, mende hauetan zehar indarrez eragindako uztarketa horren bilakaeraren sedimentazioa da.

Une ezberdinak ezagutu dira harreman ibilbide konplexu horretan, baina azpimarratu behar da Espainiako Erresumak ez duela inoiz geure estatalitate historikoa guztiz ezabatu, beren menpe jarri badu ere. Bestela esanik, Nafarroa ez da inoiz urtu Espainian.

Ez gara Nafarroa mitifikatu edo aldaezin batez ari, jakina, iraunkorki aldatzen eta berrasmatzen joan den errealtate konplexuaz baizik, baina, hori esanik ere, espainiar estatuak ederki dakielako estatu auzia dela Nafarroarekiko harremana, behin eta berriro erakutsi duenez. Kontua ez da nostalgian erortzea, gure egitasmoaren argudioak ez daude iraganean, ez gara aspaldiko agrabioen konponketen diskurtsoan, ez dugu ibilbide historikoa esentzializatu behar. Bestela esanik, ez ditugu espainiar edota frantziar errelatoak kopiatu nahi. Kontua da egungo egoeraren aurrekariak ongi kokatu behar ditugula, batetik, eta bestetik, oroimen estrategikoak espainiar posizioa ahultzen laguntzen duela, 1512ko konkistaren 500. urteurrenean gertatu zen moduan. Nafarroa urtu ez delako badaudelako, finean, urrats berriak emateko erroak!

Oroimen estrategikoa da, finean, iraganeko borroka eta jendarte ahaleginen erregistroa gordetzea eta elikatzea, etorkizunerako egitasmo eraldatzaileen onerako: horregatik diogu oroimen hori estrategikoa dela, eta ez dela nostalgian eta iraganarekiko liluraketan agortzen. Baina ez hori bakarrik, oroimenak eliteen eta estatuen portaera eta hautuen berri ematen digu, ekarri dutena erakutsiz eta, beraz, inposatu diguten kontakizun ofiziala kolokan jartzeko aukerak emanaz, errelato askatzaileak ekoiztu ahal izateko.

Ikuspegi historiko-estrategikotik nabarrismoa ulertu behar da Nafarroako elite atzerakoen hautu gisa noiz eta klase herritarrak antolatzen ari ziren eta abertzaletasuna zabaltzen zen unean. Lehenago euskaltzaleak izan ziren nafar eliteak baina XX. mendearen hasieran, iraultza sozial eta Bizkaian erdigune zuen egitasmo politiko nazionalistaren beldur Espainiaren batasunaren aldeko hautua egin zuten, armada eta estatuaren instituzioek beren nagusitasuna bermatzeko laguntzaile onenak zirelakoan. Gerora, Europako eskubiak faxistizatu zirenean, joera hori bera nagusitu zen Nafarroako eskubian. Testuinguru horretan lortu zuten eliteek karlismoa berengantzea eta demokrazia eta aldaketa sozialaren kontra erabilitzea.

Foralitatea izan da estatalitatea galdu ondotik gure politika ardazu duen gako nagusia. Esanahi ezberdinak izan ditu historian zehar, baita zalantza-garritasun handia ere, une berean erresistentziaren eta menpekotasunaren

ikur izan baitzitekeen. Joko esparru nagusia ordenatzen zuen, edonola ere. Esanguratsuki, foralitatearen irakurketa berritu zuten aipatu une historiko delikatuan eliteek, euskal lurraldeek komunean zutena ahaztuta, euskal lurraldeen arteko harresi moduan erabiltzeko. Nafartasuna eta foralitatea, aurrerantzean, Espainiarekin, katolizismo integristaz eta egitasmu autoritarioaz lotuta agertuko ziren, “Euskadi” eta Errepublika-Iraultza-Demokraziaren kontra. Hori zen 1936ko altxamendu faxista eta ondotik etorri ziren sarraskiei esker nagusitu zen errelatoa, frankismoan errotu zena. Baina, kasu, orduan ere, Nafarroa ez zen Espainian urtu!

Foralitatearen irakurketa faxista izan zen nabarrismoaren hezur-mamia, eta horren arabera eraiki da Franco hil ondotiko nafartasun hegemonikoa. Azalean margo demokratikoa eman zioten, jakina, baina sakonean foralitatea demokrazia ukatzeko tresna izan da eliteentzat. Trantsizioa derrigorrez diktadurarekiko demokratizazio prozesua izan behar zenez, demokraziaren ikurra hartu behar zuten eliteek ezinbestean, lekuz kanpo ez gelditzeke, baina sakoneko apustua demokratizazioa mugatzea zen, eta foralitatea horretarako euskarria izan zen.

Navarrismo-a eta berari lotutako foralitatearen errelato atzerakoia fenomeno historikoak dira, interes zehatzen arabera eta urrats jakinen bidez gorpuztu eta nagusitu zirenak. Hori ulertzea inportantea da, errelato bat hegemonikoa bilakatzen denean historikotasuna ezabatzen saiatzen direlako bere sustatzaileak, nondik datorren, nola sortu eta nola zabaldu zen ikusatzeko. Zerumuga bakar gisa aurkezteko, finean. “Naturala” dela sinestartzeko. Ikuspegi estrategikoak eta prozesu historikoen oroimen kritikoak tresnak ematen dizkigute gure garaiko egoeraren gakoak zorrotzasunaz irakurtzeko, eta erakusten digute dagoena ez dela egon zitekeen/daitekeen bakarra. Bestelako agertokiak irudikatzea bestelako agertokiak eraikitzeke lehen urratsa da, horregatik ematen diote hainbeste garrantzi irudimen politikoaren deuseztapenari, horregatik izugarritzko ahaleginak egiten dituzte iraganaren oroimena lainotzeko eta etorkizunean ireki daitezkeen aukerak mugatzeko. Iparrorratzik gabe nahi gaituzte, beraz, iparrorratza eskuetan egin behar dugu errealitatearen diagnostikoa!

Nafarroan Foru Hobekuntzaren markoa da lehen aipatu dugun tenporalitate neoliberal lau horren isla. Tenporalitate-espazio espainiar-foral honetan alternatiba eza satanizazioaren bidez gorpuzten zen, euskal anexionismoa etsai gisa hartuta: Nafarroa foral eta espainiarra ala anabasa abertzalea. Espazioa Nafarroa *soila*-rena zen; hobeki esanik Espainiari lotutako Nafarroa-

rena! Iraganera ala etorkizunera begiratzea gauza bera zen, alde guzietatik Espainiaren itunaren onurak agertzen ziren eta. Beste edozein biderik hartuz gero gainbehera ziurra zen. Espainiaren antagonismo historikoa desagertzen zen, anexionismo abertzalearen arriskuaz estalirik, eta, jakina, arrazionalitate neoliberalak nagusitzen zen: enpresarien arabeko foralitatea, denon onura! Horrela, Foru Hobekuntzaren mito fundazionala trantsizioan Nafarroak pairatu omen zuen arriskuan oinarritzen zen, kasik irentsi gintuen Euskadik, baina Espainiak salbatu gintuen errelatoaren bidez, ongizatearen eta Nafarroaren biziraupenaren garai bukatzeko irekiz. Errelato paradoxikoa zen, *arrakasta*-ren funtsa zer eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoarekin partekatzen dugun foralitatea bera baitzen. Batzen gaituena da bereizteko oinarri nagusia!

Azken urteotan –besteak beste aldaketa instituzionalari esker, baina ez soilik horregatik–, espazialitate ardatza (Espainia-Nafarroa) eta tenporalitate laua hautsi dira, beste espazialitateak mahai gainean jarriz (Nafarroa/Nafarroa-Euskal Herria/aldaketaren kartografiak) eta aukera alternatiboaren tenporalitatea irekiz. Hautsi da tenporalitate zirkularra, zabaldu da harresiz inguratutako Nafarroa. Badago espazioa bestela pentsatzea, ez beti (EAETik urruntzen gaituen) harresiaren arabera. Badago tenporalitatea bestela pentsatzea, iraganaren bertsio ofiziala kolokan jarriz (konkista izan zen, ez ituna; altxamendu faxista kriminala izan zen, ez gerra zibila; frankismoaren jarraipena izan zen, ez trantsizio eredu garria; menpekotasuna da, ez autogobernu foral osoa...) eta etorkizunerako aukera berria marraztuz. Denbora-espazio koordenadak astindu ditu azken urteotako aldaketak, laua zenari erliebea emanaz.

Jakin dakigu mentalitate eta ikuskera aldaketak ez direla jendartearen egituren aldaketaz derrigorrez bat etortzen. Gauza bat da hegemonia ideologiko-kultural bat kolokan jartzea eta beste bat indar harreman materiala hankaz gora jartzea. Baina, nahita, urteetan zehar inposatutako tenporalitate itxi honetan irekitako lubakia aukeratu dugu, azken urteotan Nafarroan gertatzen ari dena dimentsio historikoan kokatzeko: hamarkadetan gertatutako aldaketa handiaren aurrean gaude. Ziurrenik, espektatiben hedapen hau Franco hil ondoren haustura gogoak zapuztu zirenetik gertatutako fenomenorik interesgarriena da, inoiz ez baita hain urrututa egon elite atzerakoen hegemonia ideologikoa. Hamarkadetan beraiek ezarri dute zilegiaren eta ez-zilegiaren arteko muga, hamarkadetan beren nortasun ereduak izan da hegemonikoa, eta bazterketa sistema eraiki eta mantentzea lortu dute. Baina hori aldatu egin da. Aldaketa hau indargabetzen saiatuko dira,

jakina, baina hegemonia ideologiko hori hautsi da, aukera historikoa irekiz. Nafarroa ez da aldaketaren aurrekoaren antzekoa.

Lubakia irekita inposatu zuten gidoian. Lubakia botere arkitekturan. Lubakia orain arteko instituzionalitate kolore bakarrekoan. Lubakia da, beharbada, aldaketa irudikatzeko kontzeptu baliagarria, harresi sendoan irekitako zuloaren berri ematen digulako, irekitako AUKERA islatzen duelako finean. Harresian zuloa irekitzea ez da harresia botatzea, baina zulutik beste aldera pasa daiteke, lehia barnean ere egiteko, eta bi aldeetatik batera palanka egiten ahal da, zuloa bera harresia botatzeko baliatzeko. Horrela ulertzen dugu aldaketa gure ikuspegi estrategikoaren arabera. Kontua ez da zuloaren neurrien kalkuluan gelditzea, harresia botatzeko aukera ongi arakatzea eta baliatzea baizik. Ikuspegi horretatik, gure helburu estrategikoetara hurbiltzeko hamarkadetan izan dugun agertokirik egokiena dela diogu, era biribilean esan ere. Jakin badakizu kritika asko egiten ahal zaizkiola aldaketari, geuk asko eta zorrotzak egin dizkiogu barnean nahiz jendaurrean, baina nork uste zuen hain urrun ez dauden gure ibilbidearen une ilunenetan halako egoeran egonen ginatekeela? Ia zulo batean geunden gu eta zuloa egiten diogu espainiar erresumari non eta Nafarroan.

Aldaketa, finean, jendartetik iritsi da instituzioetara. Aldaketa diogularik, beraz, ez gara instituzioetan gauzatu den gehiengo berriaren eraikuntzaz ari, soilik. Gerta daiteke gehiengo horiek aldatzea edo haustea hurrengo legealdian, aldaketa jendarte fenomeno gisa zapuztu gabe, halakorik gertatzeak izugarrizko ilusio gainbehera ekarriko balu ere, edonork aurreikus-ten ahal duenez.

Aldaketa azken urteotan emandako aurkakotasunaren ondorioa da. Aldaketa, finean, indar espainiarzale atzerakoien ahultzea eta indar aurrerakoien indartzearen ondorioa eta, une berean, sintoma da. Indar harremanen mutazioa gertatu da Nafarroan eta ez da nolana hikoia izan. Espainiak duela urte batzuk lotuagoa zuen Nafarroa orain baino. Nafarroak Espainiaren menpe jarraitzen du, eta egitura sozioekonomikoak eliteen menpe jarraitzen dute, jakina, baina aldaketa sakonak gertatzen ari dira, oso sakonak. Erregimena urratzen duten aldaketak, hots.

D. Erregimena ulertu Erregimena gainditu ahal izateko

Sari erabiltzen dugun kontzeptua da erregimenarena, baina ez da beti argi zer esan nahi dugun diskurtso publikoan baliatzen dugunean, ezta barne goetan agertzen denean ere. Esaten ahal da intuitibo eta enpirikoki badugula erregimenaren ezagutza, baina aski al da hori? Gure ustetan, eta azterketa honetan gure buruari pausatu diogun erronkaren ikuspegitik, ez. Maila intuitibo horretatik maila analitiko-kontzeptualera pasa behar dugu, argipen hauek ezinbestekoak baitira egin behar dugun azterketa zorrotzerako.

Aldaketa jendartetik instituzioetara iritsi aurretik *El régimen de UPN* kontzeptua erabiltzen zuten batzuek, esanguratsuki, *Diario de Noticias* egunkaria horietako bat zelarik. Eztabaida politiko-sozialean gero eta gehiago erabiltzen zen erregimen hitza, eta ireki zen lehia esanahiaren inguruan, ez baitzen gauza bera PSN erregimenetik at kokatzea, hainbatek horrela kokatu nahi zutelako, alderdi horrekiko akordio aukerak zilegiztatzeko. Edonola ere, interpretazio gatazkatik harago, garrantzitsuena zen terminoa esparru hiperpolitizatuetatik jendartera pasatzen ari zela, politizazio joera zabalaren testuinguruan. Hau da, kontzeptua erreferentziala zela ordurako eztabaida politikoan. Eta izaten jarraitu du aldaketaren lehen urteotan, bistan denez.

Erreferentziala bai, baina esanahi partekatuz ez. Izan ere, aurreratu dugunez, kontzeptuaren definizioak ondorio politiko-estrategikoak ditu, azterketa nahiz jarduerak errotzen eta norabidetzen baititu. Erregimena politikoki problematizatzen baldin bada, hau da, egiturazko arazo nagusi gisa hartzen bada, erregimenaren aldaketa, egokitzapena edo ordezkapena agendan kokatu behar da, derrigorrez. Bestela esanda, aldaketa erregimen aldaketa gisa ulertzen da.

Alta, Nafarroako lehia politikoaren gako nagusia UPNren nagusitasun instituzionalaz eta alderdi horren jardueraz identifikatzen baldin bada, erregimen kontzeptuak galtzen du garrantzia, eta gobernu eta jarduera aldaketek agenda betetzen dute, egiturazko aldaketak agendatik baztertuta. Bistan denez, hau da eragile batzuen ikuspegia, egiturazko aldaketak ez baitaude beren zerumugan. Begibistakoa da, beraz, kontzeptua argitzea funtsezkoa dela.

Zertaz ari gara Nafarroan erregimena diogularik? Zer da erregimen bat? Erregimen kontzeptuak alderdi eta instituzioen esparruetatik harago doa, jendartearen antagonismoak eta indar eta botere harremanak aintzat har-

tuz. Joko araei erreparatzen die jokoaren nondik norakoetan gelditu gabe. Eta politika estrategikoa berreskuratzen du noiz eta historiaren bukaeraren paradigma pean kudeaketak lehia politikoaren lekua hartzen duelarik. Erregimen kontzeptuak historikotasuna ekartzen digu gogora, oroitzen digu ordenu politikoak ez direla zerutik erortzen, ez direla inolako Jainkoaren emankizun ezta errealitate natural aldaezinak, interes eta jarrera lehian inposatzen diren botere harremanen kristalizazioak baizik. Finean, artikulatu egiten direla eta, beraz, desartikulatu eta beste batez ordezkatzeko ahal direla, horretarako indar-harremanak eraikitzen baldin badira.

Garcia Linera boliviarrak Poulantzaren ekarpenak hartzen ditu estatua klase eta klase zatikien arteko indar harremanen kondentsazio materiala dela azpimarratzeko. Estatua, gauza bat baino, harreman bat da, beraz. Estatu gisa hartzen den estatu aparatuen amarauna baino gehiago da ikuspegi honetatik estatua, horrenbestez. Kondentsazio horiek forma ezberdinak hartzen ahal dituzte, edonola ere, eta horiek dira, hain zuzen, erregimenak, kondentsazio formula historiko zehatzak. Bigarren Errepublika eta Francoaren Diktadura espainiar estatuaren forma zehatzak izan ziren, eta bigarretetik eraiki zen 78ko erregimena, beraiek aldarrikatu bezala, “de la ley a la ley”. Erregimen bakoitzak bere ezaugarri bereziak ditu, bere erroak, bere oinarri eta bere erronkak, bere euskarri eta bere etsaiak, bere arrisku eta bere indarrak. Eta ez da estatikoa, harremanen kondentsazioa den heinean, indarrak mugitzen badira, harremana ere mugi baitaiteke.

Nafarroan erregimena aipatzen dugunean, beraz, ez gara UPNri buruz ari, ezta Parlamentuan dagoen aritmetikaz ere, sektore, klase eta eragile sozialen arteko harremanen kondentsazioaz baizik. Kondentsazio hori, alta, ez zen Nafarroan eraiki era autonomoan, are gutxiago demokratikoki, Espainiatik eta eliteen lidergopean, indarrez eta oso prozesu bortitzaren bidez baizik.

Nafarroako erregimena deitzen dugun hori ez da Nafarroan aske eta demokratikoki eraiki. Madrilen ezarri ziren joko arauak, diktaturarekiko hausuraren aukera baztertuz eta goitik behera zuzendutako trantsizio mugatua inposatuz. Estatu auzia izan zen frankismoaren garaian eraikitako subjektibitate indartsuak haustea, diktaturaren kontrako borrokan lehen eragile izan zen Hego Euskal Herria bi instituzionalizazio prozesuen bidez zatikatuz. Nafar elite frankisten konplizitateaz egin zen, bai estatuak zein elite atzerakoi hauek diktaturako indar harremanak luzatu eta egokitu nahi zituzten, herri eragile aurrerakoien eragina mugatzeko. Foru Hobekuntzaz gorpuztu zen instituzionalizazio prozesua adostasun horrek gidatu zuen

hasieratik bukaerara, eta, esanguratsuki, indartu zen 1981ko autokolpearen ondotik, PSOEek euskal lurraldeen batasunaren aldeko posizioa baztertu eta aurretik prestatutako gidoia barneratu zuelarik, Gobernu bereganatzeko aukera opari gisa jasoz.

Erabat antidemokratikoa izan zen instituzionalizazio prozesua, baita erregimen zahar-berriaren eraikuntza ere. Ez zen instituzionalitate frankistarekiko inolako hausturarik gertatu, ezta maila sinbolikoan ere. Hori bereziki larria da aintzat hartuta Nafarroan ez zela gerla zibilik gertatu sarraski faxista erraldoia baizik. Francoren ondotiko erregimena hiltzaileen arabera eraiki zen, hildakoen gainean. Baita nafar frankismoaren errelatoaren jarraipena ere!

Izan ere, 1936ko altxamendu faxistak arrakasta izan zuen Nafarroan espainiar errepublikaren egitasmo askatzailearen gainetik, *Navarra foral y española* paradigma indarrez inposatuz. Eredu hori nagusitu zen frankismoan, jakina, beste edozein zigortuta baitzegoen, eta erreformak berretsi zuen. Materialki zein ideologiko-kulturalki, eta beraz, politikoki, erregimen berriak aurrekoaren etsaiak berreskuratzen zituen, baina espainiar errepublikaren egitasmoa defendatzen zutenek abandonatuta haustura demokratikoa abertzaletasun ezkertiarraz loturik agertzen zen, eta beraz, nafar pentsalari faxisten antiabertzaletasuna bilakatu zen diskurtso nagusia: “Que vienen los vascos a acabar con Navarra”. Mendebaldeko beste lurraldeetan bezala, terrorismoaren kontrako borrokaren forma hartuko zuen orduetik aurrera Nafarroan ere protesta politikoaren satanizazioak:

“Que vienen los vascos de la ETA / con los de la ETA a acabar con Navarra”.

Espainiar Estatuak eta elite atzerakoiek egin zuten hautu horrek Nafarroa salbuespen egoera iraunkorrean kokatzen zuen. Horregatik erregimena Nafarroan salbuespen erregimena izan da, bazterketa erregimena. Arrisku baten gainean eraikita zegoenez, beldurra izan da beti sentimen politiko nagusietako bat. Anexioaren beldurrak zilegiztatzen zuen, finean, jendar-tearen sektore eta jarduera, ideia eta erreferentzia kultural asko baztertzea, kanpoko inbasioaren aurrelari gisa hartuta. Horrela, sentimen identitario baztertzaila eraiki zuen, nafartasun antieuskaldunarena, egiturazko *Naparthoid* forma oinarritu zuena.

Horregatik, erregimen itxi eta autoritarioa izan da hasieratik. Estatu indarkeria eta errepresioaren forma guziak baliatu dituen, populazioaren

zati handiak politikatik at de facto kokatu dituena. Edozein kritika elkarbizitzaren kontrako erasotzat hartuz, adostasun bertikalak eraiki ditu, konplizitateak ondare publikoez sarituz. Urteen poderioz antiterrorismoa disziplinatze bitarteko nagusia bilakatu zuen erregimenak, edozein protesta sozial jomugan jarritz. Bere burua biktimizatu duen erregimena dugu, finen, eliteek egoeraren kontrola mehatxatuta gisa agertuz bermatu dutena.

Baina ez da soilik inposizioa izan. Erregimenak jendarte babesa izan du, zerumuga partekatuak eraiki dituelako, bai mehatxu mailan, aipatu dugunez, baita elkarbizitza eredu gisa, nafar ongizate oasiarena, hots. Erregimenak, nafar askoren begietan, funtzionatzen zuen. Ongizate maila eredugarriak atzematen ziren Nafarroan, Ebrotik behera inon ikusten ez zirenak. Eta diskurtso hegemonikoak “arrakasta” hori Espainiarekiko leialtasun foralean kokatzen zuen: onuragarria zen Nafarroarentzat Espainiaren “komunitate forala” izatea eta alternatiba bakarra Nafarroa gisa desagertzea zen, terrorista-anexionista euskadianoen eskutik.

Erregimena, honenbestez, era zabalean ulertu behar dugu. Foru Hobekuntza da sinbolizatzen duen marko legala, baina 78ko konstituzioa da joko arau nagusiak biltzen dituena, nahiz eta, askotan ikusi dugunez, materialitate hori erabaki eta jarduera faktikoez uztartu behar den. Izan ere, oso zaila omen zen konstituzio hori aldatzea, baina ia egun batetik bestera egin zuten finantzen aginduz, zorraren ordainketa blindatzeko. Bestalde, ederki dakigu testu legal horretan aipatzen diren oinarritzko eskubideak ez direla deus estatuak berak zer den zilegi eta zer ez erabakitzen duenean. Hori da testuingurua, eta erregimenaz ari garenean, instituzioak eta beren arteko harremanez gain, botere ekonomiko, mediatiko, erlijioso eta sozial batzuek egiten duten apustu kontserbadore-atzerakoia, indar polizialak eta iruditeriak, ikurrak, kode kulturalak eta antzekoak hartu behar ditugu aintzat. Legeek mugatzen dituzte aukerak, baina epaileek interpretatzen dituzte legeak beren posizioen arabera, espainiar estatu-egituraren ikuspegitik eta kode kultural, ideologiko eta politiko zehatzen arabera. Komunikabideek apustu estrategikoak egiten dituzte, jabeen interesen arabera (pribatuak) edo buruen aginduetara, baina behin-behineko behar eta interesak ere badituzte, eta ezin dira geldirik egon indar harremanak aldatzen direnean. Eliza, Opus Dei sekta katolikoa, enpresariak... eragile horiek agenda propioa dute, erregimen zehatz batean kristalizatu dena, baina krisian beste bideak aurkitzen ahal dituena. Bestela esanda, urteetan zehar nagusitu den kondentsazio formula kolokan agertzen bada, eragileek posizioa hartzen dute, jarraipenaren aldeko hautua edo beste aukeren alde ginez, eta mugimen-

du horiekin indar korrelazioa berriro ere aldatzen dute. Horregatik erre-
kionatzen dute indar oroz erregimen baten kudeatzaile nagusiek edozein
erronkaren aitzin, uste baitute zulo txikienak eraikina erorarazten ahal
duela, konplizitate eta leialtasun trama hautsita.

Erregimena espainiar erresumarekiko menpekotasuna eta elite kontser-
badore espainiarzaleen nagusitasunaren kondentsazioa da, beren aldeko
egiturazko abantailak kristalizatzen dituena, beren egitasmo berekoia jen-
darte zerumuga bilakatzen duena. Eta erregimena ere bada kristalizazio
hori ordezkatzeko eta une berean berrekoizten duen nafartasunaren eredu
navarro-españolista (*Navarra foral y española*-rena).

Erregimena eta erregimenaren aldaketaren aldeko indarren arteko lehiaren
egoerari erreparatzeko, beraz, erregimena bere maila aniztasunean eta sa-
konki aztertu behar dugu. Trama bat den heinean, atalka egin behar dugun
disekzioak ez digu gorputza osotasunean arakatzeko beharra ilundu behar.

E. Ezker abertzalearen estrategia egokipena Nafarroan

Txosten honen helburua ez da egindako egokipenaren nondik norakoetara
itzultzea, jakina, baina Nafarroa mailako azterketa estrategikoa egiten ari
garen heinean, komenigarritzat jotzen dugu hainbat ohar egitea, batetik,
gure strategiaren onura eta kalte-akats eraginkorrenak oroitu eta egokipe-
nak mahai gainean jartzen dituen erronka nagusiak zerrendatzeko.

Oro har, uste dugu askapen-estrategiak asmakizun erraldoia izan duela zati-
ketaren logika errefusatuz eta, korrontearen kontra, euskal lurraldetasuna
defendatuz. Halaber, uste dugu hautu estrategiko zuzena izan zela errefor-
ma postfrankista eta, era berezian, nafar-españolismoaren nagusitasunaren
araberako indar harremanen kristalizazioa den Foru Hobekuntzaren Erre-
gimenaren kontrako jarrera irmoa. Bide beretik, uste dugu beste hainbat
euskal lurraldetan baino hobeki landu dugula euskal askapen egitasmoa-
ren euskarri soziala, bestela esanik, Nafarroako ezker abertzalearen ezker-
tiartasuna beste lurraldeetan baino agerikoa izan dela. Onuragarritzat eta
gure ondare handienetako bat gisa jotzen dugu hau ere.

Alta, uste dugu lurraldetasunaren inguruan tematu garela hainbat posizio-
tan, balore eta printzipioekiko leialtasuna bideragarritasunaren gainetik

jarriz. Bestela esanik, onuragarria izan zen erreforma egin zenean hartu genuen jarrera, baina behin erreforma aurrera eramanez, batez ere urteak pasata, arazo handiak izan genituen egitasmoa eta diskurtsoa egokitzeko. Hainbat saio egin genituen (instituzioetako jarduera, diskurtsoa...) baina ezin izan genuen zatiketaren logikari aurre egiteko estrategia emankorrik garatu, erresistentziatik harago.

Honek ez du gure lanaren eraginkortasuna ukatzera eraman behar: erresistentzia irmoa egin dugulako iritsi gara gaurko egoerara, inolako zalantzarik gabe. Gure irmotasuna, sekulako ordaina ekarri diguna, portzierto, onuragarria izan da oro har, aukera berriak ireki dituelako. Nolabait esateko, erreforma eta zatiketaren ateak ixten ari zirenean, hanka jarri genuen, itxiera ekiditeko, eta egundoko mina egin badigute ere, ez dugu inoiz mugitu, itxiera ezinezkoa eginaz.

Zorionez, duela jada urte asko abiatu genuen auzi honen inguruko gogoeta, estrategia orokorra Nafarroan Garaian egokitzeko. Izandako hainbat akatsen zamak, alta, baldintzatu ditu gure aukerak. Gatazkaren gordintasunak ere ondorio bereziki larriak izan ditu Nafarroan, errepresio bortitzenaz batera gu isolatzeko eta geure egitasmoa urratzeko eraso gogorrenak nozitu baititugu. Denbora behar izan dugu, sortutako erresistentziak eta errotutako inertziak gaingitu eta ausardiaz urrats berriak emateko.

Gauzak horrela, asmakizun historikoa izan da azken hamarkadetan korapiloa askatu eta Nafarroa Garaian estrategia berezia diseinatu eta garatzeko hautua. Egin dugun heinean, eztabaidaren baldintzak hobetzen joan gara, Espainiari eta bere menpekoei gehien komeni zitzaizkien markoak ahulduz, ikuspegi berrietarako aukerak irekiz.

Egokipen estrategikoak bide honetan izan duen eragina azpimarratu nahi dugu. Nafarroako aldaketa ez zen inoiz gertatuko egokipena egin izan ez bagenu. Ez da aldaketaren oinarri bakarra, baina bai ezinbesteetako bat. Estrategia aldatu genuelako ireki ziren aukerak; aliantza politika ausarta egin genuelako lortu genuen indarrak biltzen hastea. Egokipen estrategikoak geure irudimen politikoa indartu zuen, bide berriak asmatzeko aukera bultzatuz.

Era berezian, oso onuragarria izan da estrategia nazionala hiru erritmo-esparru ezberdinen arabera osatzeko ikuspegiaren garapena, Nafarroan estrategia zuzena garatzeko beta eman baitu. Izan ere, korapilo erraldoi baten

aitzin geunden, lurralde batasuna, borrokaren uzta gisa kokatu beharrean, abiapuntu bilakatu genuelako. Nola abiatu, alta, Argalaren aipatu kezka horretara itzuliz, indar harremanak halakorik ez bazuen ahalbidetzen? Derri gorrez indar-korrelazioa aldatu behar zen eta, beraz, ezin zen abiapuntua izan, borrokan lortutako aurrerapenen efektua baizik. Gurpil zoroan geunden harrapatuta nolabait esateko, sinetsi nahi izan genuelako negoziazio batek hainbat eragileren posizioa aldarazi eta lurralde zatiketa gaindituko zuela, borroka armatuaren bukaeraren testuinguruan.

Orain badakigu akats handiak zituela ikuspegi horrek, besteak beste espainiar estatuak ez duelako inoiz halakorik onartzeko asmorik, baina batez ere, aldaketa goiko mailan kokatzen baitzuen, herriaren baitan baino. Horrek giltza nori eta espainiar estatuari ematen zion, nahi gabe. Bide horren defentsak gure zilegitasuna urratu zuen, aukera ematen baikenien espainolistei herritarren borondatearen defendatzaile gisa agertzeko, beren egitasmoa oso bestelakoa bazen ere. Nola ahantzi nafarron borondatearen mantra, bat-batean guztiz desagertu dena, noiz eta eztabaida nafarron borondatearen jabetzan jarri dugunean?

Behin eta berriro errepikatzen ari garenaz, helburu estrategikoekiko fidelitasuna, eta hara iristeko egin beharreko urratsen arteko dialektikan dago gakoa. Hainbat urtetan huts egin genuen, ezinezko gisa agertzen zirelako, gure esparruetatik at, proposatzen genuen egitasmoa zein lortzeko bidea. Azken urteotan akats hori gainditu dugu, oraingo markoaren birkokapena oinarri izanik beste agertokietara trantsizioa mahai gainean jarri dugu, eta, batez ere, urrats zehatzak emateko gai izan garelako.

Nafarroako eztabaida nagusiaren arauak eraldatu ditugu, horrela. Aldaketa izanen da ala ez erregimen aldaketa, goizegi da jakiteko, baina erregimen aldaketa izan daiteke, eta aukera soilak alarma guziak piztu ditu. Eta aukera ireki da, besteak beste, gure estrategia egokitzeko gai izan garelako.

F. Titanic erregimena, aldaketaren icebergaren kontra

Erabiltzen ditugun kontzeptuen esanahia argitzeko beharraz ari gara etengabeen jo eta ke idazki honetan. Norabidetze estrategikoak oinarri sendoak behar ditu, nahasketak gogoia lainotzen baitu. Guk badugu askapen estrategia sendoa, epe luzekoa, zeinaren arabera irudikatzen baitugu gure egune-

roko jarduera, helburu eskuragarrien arabera, agertoki berriak sortuz urrats berriak eman ahal izateko. Gauzak horrela, Nafarroako aldaketa instituzionala aukera gisa ezaugarritu dugu gure egitasmo estrategikoa aurrera eramateko, ezarritako egiturazko oztupoak altxatu edo, bederen, ahultzeko baliu baitu, subjektibitateak aldarazi eta gehiengo berriak eraikitzen joateko.

Hautabide independentistaz mintzo gara adostu ditugun txostenetan. Zertan datza hori Nafarroan? Gehiengo soberanista-independentistaren erai-kuntza dugu erronka nagusietako bat eta eusteko, alde batetik, egitasmo horren aldeko indarrak sendotu behar ditugu (eraginkorrago izan daitezten, eztabaida eta agenda politikoa baldintzatuz) eta, bestetik, oraindik soberanista-independentistak ez direnak konbentzitu behar ditugu.

Bazterketa sistema gisa definitu dugu 78ko Erregimenaren nafar formula. Areago, soberanismoak proposatzen duena ezinezko bilakatzeko bazterketa sistema dugu. Hori inportantea da, batzuetan ohiko demokrazia liberal batean biziko bagina bezala egiten baitira azterketa politikoak. Nafarroan, Franco hil ondotik, aurretik ezarritako salbuespen politikak egokitu eta mozorrotu ziren, baina egiturazko bazterketa (*Napartheid* hitza erabili dute batzuek) mantendu da oso era bortitzean. Askotan esan da Nafarroa errepresioaren laborategia izan dela, eta ez da azaleko topikoa, errealitatearen alderdi hori azpimarratzeko era inspiragarria baizik.

Geure estatuaren eraikuntzaren aukera ez da modu berean defendatzen demokrazia liberal batean eta diktadura batekiko lotura hautsi ez duen salbuespen sistema batean, demokraziaren itxura hartzen badu ere. Ez gara eskoziarrak Britainia Handian, nafarrak Espainiako Erresuman baizik. Pentsatzen ahal da soberan dagoela hain begi-bistakoa den hau gogora ekartzea, baina egoeraren irakurketan eta strategiagintzan agertzen diren zalantza, kezka eta akats asko horren ahanzturan oinarritzen direlakoan gaude. Horregatik beharrezkotzat jotzen dugu hori argitzea.

Nafarroako aldaketa instituzionala ez da ohiko gobernu (herrialdeaz nahiz udalez ari gara gobernu esatean) aldaketa. Ez da gehiengo instituzional berrien osaketa hutsa. Ez da sistemaren logikaren barneko gertaera arrunta, logika hori gaintitzen duen fenomeno historikoa baizik, sistema osoa diseinatuta zegoelako hori inoiz ez gertatzeko. Honek ez dio garrantzirik kentzen gehiengo horiek egin dutenari, baina egin dutena ohiko demokrazia liberal batean biziko bagina bezala aztertzea akats larria da, oso larria. Kontua ez da demokrazia liberalak idealizatzea, ederki dakigu egiturazko botere harre-

man injustuen arabera eraikita daudela eta kapitala eta eliteen nagusitasuna bermatzeko formula itxurosoak direla. Halaber, badakigu desdemokratizazioa inposatu duela neoliberalismoak, gaur egungo demokrazia liberalak duela hamarkada batzuk baino autoritarioagoak eta prekarioagoak direla. Baina espainiar estatua eta, bereziki, Nafarroan ezarritako erregimenaren berezitasunak aintzat hartu behar dira, beste egoera batzuekin nahasi gabe.

Erregimenak tresnak ditu espero ez zuena ere irensteko, edo lehenbailehen itzularazi eta kontrol osoa berreskuratzeko. Bi gauzak batera eginaz aritu da 2015etik. Alde batetik, kooptazio saioak, Geroa Bairekin batez ere, eta, bestetik, eraso bortitz eta zuzenaz, EH Bildu jomugan jarritz, aldetaren bloke sozial osoa kolpatu nahian. Horiek ere ez dira izan demokrazia liberal batean gobernu galeraren aurrean erantzuteko ohiko jarduerak, eta horretan ere salbuespen egoera nabarmena da. Kontraofentsiba martxan dago eta munduan indartzen ari den olatu autoritarioaren oihartzunaz baliatuko dira, zalantzarik gabe. Honek erakusten digu, alta, ez gaudela demokrazia libaletan gertatzen den ohiko gobernu aldaketa baten aitzin.

Aldaketa baztertuen ahalduntzea da. Ahalduntze mugatua, kontraesankorra, prekarioa, nahi duguna, baina ahalduntzea, aurreko egoerarekiko kalitatezko jauzia, halakorik ez baita inoiz gertatu Nafarroan. Ahalduntze horrek alternantzia liberalaren arauak gainezkatzen ditu. Ez da iraultza, ez da insurrekzio baten ondotiko lurrikara, ez da boterea hartzea, baina urrats handia da, posiblearen mugak mugiarazten dituen, utopikoa zena egingarritzat erakutsiz.

Eta, era berezian, demokrazia liberalaren logika gaindituz, azpimarratu beharra dago aldaketa kontzeptua ez dela guretzat instituzioetan gertatzen ari dena, fenomeno askoz era zabalago eta sakonagoa baizik. Bazterketa sistema baten oinarrien krisi larria da Aldaketa, jendarte joeretan, erreferentzia kultural-ideologikoetan, sindikatu mailako indar korrelazioan, nortasun ereduaren artikulazioan, herri eragileetan eta era berezian nortasun politikoetan, eta *navarrismo* (gehiengoa-ofiziala-hegemonikoa) *vasquismo* (gutxiengoa-baztertua-satanizatua) artikulazio historikoa krisian dago. Krisi ekonomiko eta erregimenaren zilegitasun gainbehera tenorean aldaketa horiek korapilatu dira espektatiba historikoa mahai gainean jartzeko: betikoei instituzioen kontrola kentzeko aukera errealtate bilakatzeko, finean.

Aspertu arte esanen dugu: aldaketa taupada jendartetik iritsi da instituzioetara. Aldaketa instituzionala iceberg handiago baten adierazpena da. Lehia

iceberg horren hazkundera bultzatzea da. Instituzioetan gertatzen dena edo gobernuek egiten dutena funtsezkoa da, jakina, baina gure logika politikoa integrala da, ez da agortzen demokrazia liberal parlamentarioan, horregatik, irakurketa integralak egin behar ditugu: erregimena (Titanic) desegin dezakeen iceberg hori nola eboluzionatzen ari den neurtzeko. Begien aurrean talka instituzionala atzematen da gehienetan, hori delako uraren gainetik ikusten dena eta nagusitzen den logika liberal horrek hori gaindimentsionatzen duelako, baina guk beste begirada bat behar dugu: burua ur azpian sartu beharra dago, hor gertatzen dena ongi aztertu eta bilan orokorra egiteko, ur gainean eta ur azpian gertatzen diren joerak arakatu.

Aukera historikoaren balio estrategikoa kudeaketaren bilan estuen gainetik dago, demokrazia liberalaren logikan erortzen ez bagara bederen. Bazterketa sistemaren deslegitimazioa eta deseraikuntza dira gakoak, beste eredu baten eraikuntzari lehentasuna eman ahal izateko. Eta oso inportantea da irekitako lubakia sendotzea.

Iceberg handi bat Titanic-en etorkizuna kolokan jartzen ari da. Urratu du, baina ez du hondoratu. Iceberg hori urtu daiteke, edo horma zati batzuk aldentu daitezke, lehia ez dago aurretik erabakia. Baina guk burua hotz izan behar dugu, talka osotasunean irudikatu eta norabide zuzena mantentzeko.

2. Erregimenak egun duen errotzea neurtzeko begirada: azken urteetako balantze laburra

Azaldu berri denez, Erregimena da Nafarroaren Estatuarekiko menpekotasunaren eta elite espainiarzale atzerakoien nagusitasunaren kondentsazioa. Beste modu batera esanda, bi helburu nagusi horiek posible egiten dituen sistema juridiko-politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala. Erregimena, beraz, ez zen eta ez da inoiz UPN-PSNren gobernu soil bat izan; askoz sistema konplexuagoa da, hanka ezberdin eta anitzak dituena.

2015ean UPN-PSN Nafarroako Gobernutik kanporatu izana, ezbairik gabe, Erregimen horren deseraikitze prozesua indartzeko ezinbesteko urratsa izan zen, baina hori esanik, argi ere izan behar dugu oraindik Erregimena osoki desmuntatzetik oso urrun gaudela.

Alta, norabide onean goaz? Azken hamarkadaren ardatz tenporalari erreparatzea besterik ez dugu. Ezker abertzalearen ilegalizazio eta zokoratzen politiko-instituzionalaren une gorenetik, mugimendu independentistaren eragin-ahalmena jendartearen sektore guztietara zabaltzeko gaitasuna izatera igaro gara.

Hori esanik, fase politiko honi ezarri dizkiogun helburuek harreman zuzena dute Erregimenaren deseraikitze prozesuarekin. Eta zeintzuk dira helburu horiek? Bada, Nafarroan plano instituzional zein ideologikoan oinarri demokratikoak ezarri eta, horrekin batera, eskubide sozialak eta nazionalak bermatuko dituen sistema bat eraikitzea, burujabetza prozesua muturrera eramán ahal izateko lehen estadio gisa.

Ezin uka daiteke Erregimenaren indarrak ahuldu direla azken hamarkadan. Ez guk nahi eta behar dugun beste, baina baldintza hobegoetan gaude burujabetza prozesuan sakondu ahal izateko.

Aitortza orokor horretatik abiatuta, non gaude gaur egun? Nola dago Erregimena? Horixe bera eremu aztertzea da hurrengo lerroen zioa. Hori bai, hasi aurretik argi gera dadila helburua ez dela Nafarroako egoeraren azterketa berritzea, Erregimenak bere nagusitasuna betikotzeko dituen egitura edo lanabesen analisisa egitea baizik.

Has gaitezen bada.

2.1. IKUSPEGI SOZIOEKONOMIKOA

A. Erregimenaren hanka soziala: UGT, CCOO eta CEN

CEN, UGT eta CCOOk osatu dute historikoki Erregimenaren “hanka soziala”. Elkarrizketa Sozialaren amarruaren bidez, bake sozialaren itxura eman eta sindikalgintza abertzalea baztertu izan dute urte luzez. Trukean, hiru eragile horiek pribilegiozko trataera bat jaso dute azken hamarkadatan Erregimenak kontrolatutako Nafarroako Gobernuaren eskutik:

- Parte hartze instituzionalerako esparruetan, beraiena izan da lan-eremuaren ordezkaritza bakarra: Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Lan Auzitegia, Gizarte Ongizate Kontseilua...
- Instituzio publikoek egin beharko lituzketen hainbat jarduera kudeatu dituzte, inolako deialdi publikorik gabe: langabeen prestakuntza eta orientazioa, langileen prestakuntza, etorkinei harrera, emakumeei begirako zerbitzua.... Esaterako, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan, konbenio nominatiboak egin izan dira urtez urte. Prestakuntza eta orientazio programak erabili dituzte UGT eta CCOOeko afiliatuak enpresetan “entxufatzeko”.
- Batetik eta bestetik, izugarritzko dirutza jaso dute UPNren gobernuen eskutik: urtero 6 milioi euro inguru eragile bakoitzarentzat. Askotan, Nafarroako Kutxan gertatu bezala, programak eta gune desberdinetan parte hartzea, diru publikoa eskuratzeko bitarteko hutsak izan dira (argi ikusi zen Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluaren sorrerarekin, aurreko legegintzaldiaren amaieran: estutasun ekonomikoak zeudenean, 900.000 euroko laguntza ezarri zen urtean bospasei bilera egiteagatik). Diru publikoari esker elikatu dituzte euren egiturak eta horri esker mantendu dute euren nagusitasuna eremu sindikalean UGTk eta CCOOk. Alegia, bi sindikatu horiek dopatuta parte hartu dute hauteskunde sindikaletan.
- Era berean, enpresen aldetik prebendak jaso dituzte. VWen kasua esanguratsuena da: kontratazioen heren bat UGTk, beste herena CCOOek eta hirugarren herena Enpresako agintariek erabaki dituzte. Praktika honek aukera berdintasuna ezartzen duen Europako Direktiba urratzen du. Trukean, UGT eta CCOOek bake soziala bermatu dute VWen eta beste enpresetan, eskubideak murrizten zituzten hitzarmenak sinatuz.

- Kanporatzeak egon direnean ere, aldeko tratua jaso dute. Koxkako kasua esanguratsua izan zen: Enplegu Erregulazio Espedientea UGT eta CCOOek sinatu, eta LAB, ELA nahiz ESK-ko jendea bota zuen enpresak.


Egoera, beraz, zinez zaila zen. Nolakoa da balantzea gaur egun?

Erregimenaren hanka sozial honen elementu batzuk eraitsi egin dira, bai, eta horrek badu garrantzia; baina, bidea dago aurretik deseraikuntza prozesua muturrera eramateko.

CCOO-UGTren nagusitasun historikoa kolokan jartzen hasia den mugimendu magmatikoari erreparatu diezaiozun:

Delegatu sindikalak Nafarroan

Azaroari dagokion urteroko datuak



Ikusi daitekeen moduan, 2015etik aurrera proiektuen lehia mugimendu nabarmenak egon dira. Esanguratsua UGT-CCOO poloak %50aren azpitik kokatu izana lehen aldiz historian.

	2010	2014	2018
UGT-CCOO	% 55,5	% 53,25	% 49,16
Gainontzeko guztiak	% 44,5	% 46,75	% 50,84
ELA-LAB	% 33,7	% 34,6	% 38,7

Lorpenen artean aipa liteke Gobernu berriak sindikatu guztiak aintzat hartzen dituela, eta hortaz, sindikalgintza abertzaleak pairatzen zuen bazterkeriari amaiera eman zaiola. Horrekin batera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan komenio nominatiboak ezabatu egin dira, eta horrek UGT eta CCOOen diru sarrerak nabarmen murriztu ditu. Gaur egun, jarduera asko azpikontratitzen bada ere, egitura publikoa indartu egin da (batez ere orientazioari dagokionez, ez hainbeste prestakuntzan).

Erdibidean geratu dira beste hainbat eremu. Adibidez, 900.000 euroko diru-partida ezabatu arren, Elkarriketa Sozialaren Kontseilua ez da ezabatu, EH Bilduk eta Podemosek hori eskatu badute ere. Lan Auzitegiari dagokionez, ELA eta LABen parte-hartzeaz eztabaida ireki da, baina ez dago denborarik legegintzaldi honetan gauzatzeko. Irakaskuntzan, azterketa egun berean egiteari utzi bazaio ere, kontratazioetarako euskara eta gaztelerazko zerrenda bereizituek bizirik diraute (I-E Erregimenarekin lerratu zelako).

Hutsuneetan aipagarria da VWen eta beste hainbat enpresetan diskriminazio sindikalari eusten zaiola (Enplegu Zerbitzuak ez du LABekin adostutako diskriminazioaren inguruko diagnostikorik eginen). Askatasun sindikalak bermatzeko Behatokia ere ez da martxan jarriko, akordio programatikoan bildu bazen ere. Eta azkenik: prebentzio-funtsak UGT, CCOO eta CENen artean banatzen jarraitzen dira. Nafarroako Lan Osasuneko Kontseiluak hiru eragile horien egitasmoak akreditatzen ditu, eta hori dela-eta LABek 6 hila-betez eten du bere parte hartzea eta ELAk mugarik gabe.

B. Ekonomia gidatzeko eta Ogasuna kudeatzeko lanabesak

Ekonomia jarduera orokorrari dagokionez, ezin esan azken lau urteetan aldaketa sakonik gertatu denik. Ikusi besterik ez dago zeinek daukan Nafarroako Gobernuaren barruan ekonomiaren ardura: Manu Ayerdi PNVko kideak. Bere alderdia bezala, posizio ekonomiko neoliberalen defendatzailea da. Beraz, ez dirudi Erregimenaren hanka ekonomikoa osatzen dutenek urduritzeko arrazoi handirik dutenik.

Ayerdik AHT aurrera ateratzeko duen determinazioa izan daiteke eredu ekonomikoan aldaketa nabarmenik gertatu ez denaren erakusle nagusia: azpiegitura erraldoi bat, nafarrek behar ez dutena, baliabide publikoen xahuketa ekarriko duena. Helburu bakar bat du horrek: errenta publikoa

esku pribatuetara pasatzea; edo beste modu batera esanda, gutxi batzuen aberastasuna gehiengo sozial eta herritarren kalterako. Gauzak askotxo aldatzen ez badira (ez baditugu) abiadura handiko tren bat izango dugu Nafarroan abiadura handiko kapitalismorako, eskualdeen, herri txikien eta herritarren kaltetan.

Horrekin batera, esan beharra dago gaur-gaurkoz ekonomian eragiteko Nafarroan dauden eragile garrantzitsu gehienak Erregimenaren indarren eskuetan jarraitzen dutela; besteak beste:

- Nafarroako Enpresarien Elkarte (CEN): Jose Antonio Sarría Erregimeneko gizonak jarraitzen du lehendakaritzan, eta beraz, lehengo lepotik burua. Gainera, ez dirudi eremu honetan gauzak gehiegi aldatuko direnik, Aldaketak ez baitauka hautagai alternatiborik (Geroa Bai edo PNVk berak ere ez). Izango balu ere, aukerak barrutik eragiteko hutsaren hurrengoak lirateke.
- Merkataritza Ganbera: Javier Taberna Jiménezek jarraitzen du lehendakaritzan. Erregimeneko gizona hau ere, eta besteak beste, Empresa-Universidad de Navarra fundazioaren (Opus Dei) lehendakaria. Argi dago pertsona hauekin ezin direla gauzak modu alternatibo batean pentsatu.
- Volkswagen Nafarroa: herrialdeko enpresa pribatu garrantzitsuena da, eta horrek gure herrialdea kanpo-menpekotasun egoeran kokatzen du, kanpoan hartzen diren erabakiek bertokoak diren enpresa askoren etorkizuna determinatzen baitute. Gaur-gaurkoz jabe alemaniarrekin eskuz esku lan egiten duten enpresako goi-kargu guztiak Erregimeneko gizonak dira.
- Think tank ekonomikoak: ekonomia, egiteaz aparte pentsatu egin behar da. Gaur gaurkoz, Nafarroako etorkizun ekonomikoaz pentsatu eta etorkizunari begira eragiteko martxan dauden think tank guztiak Erregimenarenak dira (Nuevo Futuro, Doble 12, SCN edota Civismo). Aldaketak ez du eremu horretan urratsik eman, herrialdeko eragile ekonomikoak beste norabide batean jartzen hasteko.

Ogasunari dagokionez, gauza jakina da Hitzarmen Ekonomikoa dela Nafarroak duen lanabesik garrantzitsuena; iraganeko subiranotasun galduaren aztarna, askotan menpekotasun ekonomikorako lanabes, eta etorkizunari begira, determinaziorik balego, subiranotasun ekonomikorako akuilu. Se-

guruenik, 1978ko Erregimena diseinatu zutenek ez zuten pentsatuko inoiz horrelako tresna bat, Nafarroan, abertzaleen esku geratuko zenik, baina gertatu da, eta alor honetan aipagarria den urratsa eman da: hitzarmen ekonomikoa 2017ko abenduaren 27an berritu egin zen, baita 215 miloi euroko “aurrezpenarekin” berritu ere.

Zoritxarrez dependentzia ekonomiko-finanzieroak sekulakoa izaten jarraitzen du, eta nafar instituzioek (Nafarroako Gobernua, Iruñeko Udal...) aurrekontuak superabitarekin itxi badituzte ere, 2011an moldatu zen Konstituzio ekonomikoaren 135. artikulua eta bere garapena den Aurrekontuen Egonkortasunerako eta Finantzen Iraunkortasunerako Legearen ondorioz ezinezkoa izan da lortutako guztia gastu sozialera bideratzea.

2.2. ESTATUGINTZEN TALKA

D. Eremu politiko-instituzionala eta administrazioa

Eremu honetan 2015ean gertatu zen aldaketa nabaria da. Hain da horrela ezen batzuek Aldaketa lotu baituten aldaketa instituzionalarekin, berez hori (soilik) ez denean. Erregimenarekin antzeko gauza gertatzen da. Erregimena ez ziren instituzioak soilik, baina UPN-PSNk kontrolatzen zituzten instituzioak Erregimenaren zutabe garrantzitsu ziren, eta hortaz, funtsezkoa zen Erregimena deseraikitzen hasteko aldaketa instituzionala abiatzea.

Aldaketa hori, beraz, gertatu da, baina noraino? Kudeaketarako gaitasunari dagokionez, UPN-PSNk zeukaten botere instituzionalaren %95etik gora galdu zuten 2015ean (Nafarroako Gobernuaz, Iruñeko Udalez, mankomunitatez eta herrialdeko udal garrantzitsuenez ari gara funtsean). Gauzak horrela, egun, Zentroniko da UPNk kontrolatzen duen udal “garrantzitsu” bakarra, eta PSNren kasuan Viana (GB eta Podemosen laguntzaz), San Adrián, Azagra eta Karkar dira. Horrek, bistan denez, ikaragarri mugatu du bi alderdi horien kudeaketarako gaitasuna.

Aldaketaren eremuari dagokionez, 2015-2019 legealdiaren helburua nafar instituzioen kudeaketaren norabidea aldatzen hastea zen, eta lan garrantzitsu honetan, ilunetik argirako bidaia hasi dugula dirudi. Aldaketa prozesua errotzeko ia ehun lege esanguratsu onartu dira legegintzaldi honetan, eta horietako batzuk Estatu zein Europar mailan eredugarri bilakatu dira (kontratu publikoen legea, mapa lokala, inklusiorako eta gutxieneko errenta

bermatzekoa, etxebizitza legea, LGTBI legea izan daitezke aipagarrietako batzuk. Bai eta legegintzaldiaren azken txanpan onartzearen dauden Foru Berria, Berdintasun Legea zein Parte hartze Demokratikoarena).

Kontratazio Publikoen Foru Legeak, kontratazio publikoetan berdintasun eta gardentasun printzipioak bermatzeko balioko du (batzuen pribilegioei eta segizio zaletasunari muga jarritz) eta, besteak beste, eremu publikoan aldi baterako laneko enpresen bidezko kontratazioa debekatuko du.

Tokiko mapari dagokionez, Erregimenak sustatzen zuen “kanpandorre politika”-ren aurrean (udalen eta mankomunitateen menpekotasuna ziurtatu asmo zuena) udal autonomia aldarrikatu du historikoki Ezker Abertzaleak beste sektore politiko batzuekin batera. Bada, legegintzaldiaren laugarren urtean Nafarroako tokiko mapa berria onartu da, zinez urrats garrantzitsua eremu politiko-instituzionalean Erregimenaren ereduaren deseraikitzean. Finantzaioaren afera hori bai, udal autonomiarentzat funtsezkoa dena, hurrengo legegintzaldirako geratuko da.

Administrazioaren funtzionamendu orokorraren kasuan, tamalez, ezin esan dezakegu aldaketa nabarmenik egon denik. Gaur gaurkoz, eta azken hamarkadatan gertatu bezala, foru administrazioaren jefatura eta kudeaketa-ardura postu asko Erregimeneko alderdi eta sindikatu etako kideek betetzen dituzte, horiei, kasu batzuetan, aldaketaren kudeatzaile berrien “lagunak” gehitu bazaizkie ere. Honek arazo nabarmena dakar, Administrazioan neurri aurrerakoiak gauzatzea ekiditearekin batera, kontratazio berriak beraien irizpideetara bideratzen dituztelako (kontratazio publikoak arauturik badaude ere).

Beste puntu garrantzitsu bat instituzioen eta herri-mugimenduen arteko harremana izan da, zinez gorabeheratsua eta nahiko genukeena baino askoz okerragoa. Zoritxarrez, hainbatetan herri mugimendua (eta sindikalismoa) instituzionalismoak jota egon dela adierazi behar dugu, bi zentzutan: batzuetan, aldaketari ortzi-muga berriak zabaltzera baino, instituzioei begira geratu da, bere jarduna fiskalizazio lanera mugatuz edota instituzioak aldaketaren abangoardia izan daitezzen exijituz.

Besteetan, kontrakoa ere gertatu da: instituzioa egoera zail batean ez jarzteagatik geldirik egotea; ulertu gabe mobilizazioak eta aldarrikapenak ez diola kalte egiten kudeaketari, moldea eta zentzua direla egokitu behar direnak baina planteamenduak eta jarrera tinkoa baztertu gabe.

Instituzioei dagokienez ere, ezin esan herri mugimenduetan behar bezalako arretarik jarri denik beti, batzuetan kudeaketaren zurrunbiloan korapilaturik ibili baitira nabarmen, herri mugimenduen eta instituzioen artean bilatzen ez zen distantzia sortuz edota areagotuz.

Aurrera begira, bistan da, instituzioen eta herri mugimenduen arteko harremana findu beharko da, ez bigarrenak lehenen menpeko bilakatzeko, bien artean dialektika bertutetsu eta eraikitzailea sortzeko baizik, Erregimenaren deseraikitzean sakontzea ahalbidetuko duena.

Bukatzeko, ikusten ez dena: eremu politiko-instituzionaletik, herri mugimenduarekin elkarlanean sustatzen diren printzipio, ideia eta baloreak. Bistan denez, terreno horretan lehia ideologiko bizia dago Aldaketaren eta Erregimenaren aldeko indarren artean, eta nahiko genukeena baino mantsago bada ere, emeki-emeki Aldaketa garaile suertatzen ari dela dirudi. Lehenik, erabakitzeko eskubidea nafar jendartearen zabaltzen ari delako, gaur-gaurkoz itzulpen politiko zehatzik ez duen arren (estatusa). Bigarrenik, nafartasunaren kontzeptua aldatzen ari delako, erregimenak sustatzen zuen nortasun atzerakoi eta españolistatik aldaketak sustatzen duen nortasun anitz, euskaltzale eta aurrerazalera. Hirugarrenik, Erregimenaren ikur zena, Nafarroaren ustezko defentsa, aldaketaren indarren esku geratzen ari delako, egun bizi dugun olatu birzentralizatzearen aurrean gure herrialdearen defentsa egiteak, berez, Madrilekiko talka nabarmena dakarrelako. Eta azkenik, Erregimenak sustatzen zuen eredu patriarkalaren aurrean berdintasuna gailentzen ari delako mugimendu feministaren borrokari esker.

Puntu ahula aldaketa sozialaren beharrean dakusagu. Egungo egoera sozial eta ekonomiko kaxkarraren aurrean haserrea egon badago, baina tamalez, proposamen alternatibo sinesgarrien faltan, beldurra da askotan gailentzen dena, eta hori Erregimenak oso ongi kudeatzen daki.

E. Sistema judiziala eta estatuko segurtasun indarrak

Gauza jakina denez, autonomiarako eskubidea, 1978an, botere exekutibo eta legegilerazabaldutik zen, baina ez judizialera. Ondorioz, Nafarroak, gaitortzeko autonomi erkidegoek bezalaxe, ez du izan eta ez dauka sistema judizial propio edo autonomikorik. Iruñean egoitza izan ala Madrilan izan, sistema beraren parte dira tribunal guztiak, eta denak aritu dira Erregime-

naren interesen zerbitzura urte guztiotan. Nagusiki, bi norabidetan lan egin dute: batetik, 78ko Erregimenarekiko haustura eta benetako demokratizazioaren aldeko hautua egin zuten herritar eta mugimenduak jazartzen, (ezker abertzalea lehentasunez, baina ez bakarrik). Ehunka izan dira gure herrialdean atxilotetak, torturak edota kartzela ezagutu duten herritarrak.

Bestetik, eta bereziki azken garaian, aldaketa politiko eta soziala oztopatzeko azken gotorleku bilakatu da sistema judiziala orokorrean eta Iruñeko Justizia Jauregia zehatzean.

Aldaketa demokratikoki geldiarazteko bozen faltan, tribunaletara jo dute iraunkorki Erregimenaren indarrek, horrek, *Zumosoleko lehengusua* bailitzan, edozein aldaketa geldiarazi zezan. Horixe da, hain zuzen, Auzitegi Konstituzionalak Nafarroari indargabetutako 19 legeek erakusten dutena edota Nafarroako tribunalek haur eskolen, euskararen, ikurrinaren edota tortura ikertzearen aurka emandako epaiek.

Gure zorionerako, baina, Erregimenaren hanka hau ez dago bere onenean. Are gehiago, erabateko krisian dago azken urteetan bizi izan duen politizazioaren, independentzia ezaren eta emandako epaien ondorioz; azken batean, eliteen morroi izanik herritarren nahi eta interesei bizkar emategatik: hipoteken gastuen harira Auzitegi Gorenak emandako epaia, CAN auzian inplikaturakoei emandako inpunitatea, Kataluniako *Procés* delakoaren aurkako prozesu judiziala... soka luze baten adibideak baino ez dira.

Gure historia garaikidean lehen aldiz botere judizialaren zilegitasuna errotik kritikatzan du Nafarroako herritarren gehiengoak, eta zentzu horretan, ez da kasualitatea azken urteetan gure herrialdean egon diren mobilizatorik handienak erabaki judizialekin lotura edukitzea, La Manadaren eta Altsasuko gazteen kasuetan ikusi dugun bezala.

Estatuko segurtasun indarren presentziari dagokionez, ezin esan bere presentzia azken urteetan nabarmen gutxitu denik. Espainiako armada aparte utzita (Bardeetako tiro-poligonoa nafarren borondatearen gainetik gerrak prestatzeko erabiltzen jarraitzen duena), 2008an 1.695 guardia zibil eta 672 polizia bazeuden, 2017an (azken datuak) 1.496 eta 612 ziren, hurrenez hurren. Gure herrialdeak, beraz, Europa osoko herrialderik militarizatuenetako bat izaten jarraitzen du, eta estatuko segurtasun indarrek berean diraute: espioitza eta jazarpen politikoa, kontrol soziala, errepresioa behar izan denean (Maravillas Gaztetxearen hustutzea kasu)..

Azken boladan polemika bizia piztu da, trafikoko eskumenaren eskualdatzea dela eta, egun horretan diharduten zoodik gora goardia zibilen etorkizunarekin. Erregimenaren indarrek beren presentzia aldarrikatzen jarraitu dute, baita modu nabarmenean soberan daudela argi geratu denean ere, dena Espainiaren nagusitasuna bermatu nahi izateagatik. Aitzitik, aldaketaren indarrei aukera ona agertu zaie gure herrialdeak polizia propio, demokratiko eta integrala behar duela aldarrikatzeko, Espainiako segurtasun indarren atzera-egitea exijitzearekin batera.

Polizia eredu propio eta demokratiko bat sortzeko ahaleginak biderkatzea beharrezkoa da. Iruñeko Udaltzaingoa, esaterako, urratsak eman dira norabide horretan (gatazken konponketa ikastaroak eta abar), iraganeko joerak behin betiko zokoratzeko (gaztetxeen inguruan edo Huertas de Peraltan bizi izan ditugun gertakariak esaterako).

F. Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)

Nafarroako Foru Hobekuntzan (1982) ageri da gure herrialdeak Unibertsitate esparrua legez garatu eta betearazteko duen eskumena, eta aipatu eskumena 1987an erabili zen Foru Lege bidez Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeko. Ordurako Erregimenaren subjektu nagusi izango zirenak aski definituak ziren (UPN, PSN, CEN, UGT eta CCOO) eta beren nagusitasun posizioa baliatu zuten beraien neurrirako Unibertsitatea sortzeko, beti ere, Opus Dei-ren Universidad de Navarrak zituen pribilegioak ukiezinak zirela ziurtatuz (titulazioen banaketan esaterako).

Zehazki, PSN alderdia eta UGT sindikatua izan ziren, nagusiki, sortze une horretan unibertsitate berriaren goi kargu guztiak “okupatu” egin zituztenak (katedrak barne), eta tamalez, lehen “okupazio” horrek ondorengo hamarkadetan UPNaren nolakotasuna guztiz determinatu du. Zergatik? Unibertsitate-eremuan, Unibertsitateen Lege Organikoaren eraginez demokrazia eza delako nagusi. Irakasle katedradunek (gutxiengo direnak), Errektorea hautatzeko boz ponderatuaren %51 dute; hau da, praktikan haiek hautatzen dute errektorea. Berdin suertatzen da unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren edota Klaustroaren kasuan, eta beraz, kontrola erabatekoa da erabaki nagusi gehienetan (planifikazio orokorra, euskara, kontratazioak...).

Unibertsitatea eta jendarte harremanak sustatzeko zereginak dituen Kontseilu Soziala sortu zenean (1995ean) berdin gertatu zen. Erregimenaren ispilu besterik ez zen izan, eta tartean HBk proposatutako hautagai guztiak baztertuak izan ziren. Gainera, Kontseilu horrek zeresan handia du aurrekontuak, plan estrategikoa edota titulazio berriak onartzeko orduan.

Gaur egungo egoerari dagokionez, ezin esan egoera itxaropentsua denik:

- Euskarak bazterrean jarraitzen du, eta UPNA bilakatu da egun euskarak hezkuntza sisteman duen botila-lepo nagusia. Aldaketaren aldeko indarren akordio programatikoan hizkuntza normalizaziorako plan estrategiko bat aurreikusten bazen ere UPNArako, errektoretza taldeak horri muzin egin eta euskararen plan gidaria aurkeztu zuen; askoz dimentsio txikiagoa duen egitasmoa.
- Unibertsitate komunitatea aztertuta, garai batean bizi eta indartsu ageri zen ikasle mugimendua ia desagerturik dago, talde txiki eta isolatu batzuegatik ez bada. Irakasleen kasuan, hezkuntza beharrek jende berria ekarri dute, eta horrek UGTk zeukan erabateko kontrola apur bat lausotu egin du. Berri onena, ez bairik gabe, egun dinamikoen agertzen den AZL sektorean dago, zeinean LAB eta CGT sindikatuek gehiengoak baituten.
- Erregimenak, etorkizunari begira apustu sendoa egin du UPNA gainontzeko euskal lurraldeetatik eta EHU edota Paueko Unibertsitateetik aldentzeko, eta horretan ari dira egungo errektoretza taldean. Lankidetzarako arrazoiak asko badira ere (esparru geografikoa, mugaz gaindiko kanpua egiteko aukera, hizkuntza eta kultura partekatua, eleaniztasuna...) nahiago izan dute Zaragoza, Lleida eta Errioxako Unibertsitateekin batera Campus Iberus egitasmo estrategikoari lotu. Unibertsitate bakoitzaren tamaina ikusita, aise ikus daiteke Zaragozako ardatz izan dela.

2.3. NORTASUN POLITIKOA

G. Hizkuntza politika eta euskara

Erregimenak historikoki bere eskuetan izan ditu hizkuntza politika garatzeko lanabes nagusiak, eta horrela, hamarkadetan zehar hizkuntza politika euskarafobia garatu dute, batzuetan makilarekin eta bestetan azenarioarekin, baina helburu argia mantenduz beti: euskara bere “erreserba” eremuetatik atera ez zedin.

Hori egin ahal izateko lagun nagusi izan dute marko juridikoa. Konstituziotik hasita, gaztelaniaren nagusitasuna bermatu egiten duena; Foru Hobekuntzatik pasatuz, ofizialtasuna ekarri ez zuena (EAEn ez bezala); eta Vasceucearen Legea (1986) heltzeraino, jakina den bezala, hizkuntza eskubideak hiru eremutan banatu zituen, eta izendatutako eremu euskaldun bano ez da euskara hizkuntza koofizial.

Gaur egun, aldaketari esker, besteak beste euskalgintzaren indarra eta jendar-tearen euskararekiko atxikimenduari esker etorri zena, Erregimenak hizkuntza-politika egiteko lanabesak galdu ditu eta norabide aldaketa bat eman da.

Edonola ere, Erregimena ez dugu desarmatu. Instituzioak galdu ditu, bai, baina komunikabideetan (*Diario de Navarra*-n indar bereziz) diskurtso sinple, erraz eta eraginkorra garatzen du (gurea ez bezalakoa), euskararen inposizioaren mamua zabalduz. Horrekin batera, txosten honetan aurretik esan den bezala, behin baino gehiagotan auzitegiak baliatu dituzte euskararen aldeko erabakiak geldiarazteko. Gainera, hori gutxi ez eta, gure hizkuntza ahulen den eremuan, Erriberan alegia, jendarte sektore aktibatuak dituzte euskararen aurkako mezuak zabaltzen eta errotzen.

Aldaketak beraz erronka nabarmenak ditu aurretik euskararen alorrean: batetik, gure hizkuntzari estatus legal berri bat emateko, ezagutza unibertsalizatu eta erabilera sustatuko duena, aldaketa instituzionala gertatu eta lau urtetara ez baikaude inondik inora beharko genukeen tokian. Eta bigarrenik, Erregimenaren diskurtsoa desaktibatze, euskalgintzaren bultzadaz, eztabaida eskubideen, berdintasunaren, kohesioaren eta justizia sozialaren terrenora eramanez. Abilak bagara, euskarafobia haien aurka ere itzul daiteke, beren oinarrietan ez baitira guztiak politika horien hooliganak.

2019ko urtarrilean Euskararen Foru Lege berria sortzeko Batzorde Bereziak ondorioen txostena aurkeztu eta Parlamentuan onartu izana, hurrengo le-

gegintzaldiaren oinarriak markatu beharko lituzke. Euskararen estatusa errebisatu behar dela ondorioztatzeak, hizkuntz-politika berri bati ateak irekitzeko bultzada eraberritzeko baliagarria bilakatu behar dugu.

H. Komunikabideak

Komunikabideen esparruan panoramak oso beltza izaten jarraitzen du ezkerreko independentismoarentzat eta aldetaren eremuarentzat orohar, eta egiari zor, autokritika hastapenetik egin beharra dago: komunikabideak, XXI. mendean, laugarren botere bilakatu direla aspaldi esaten den arren (batzuek mediokrazian bizi garela esatera iritsi dira), aldetaren lau indar politikoek ez zuten akordio programatikoan Nafarroako panorama mediatikoa astintzeko neurririk barneratu, oso ondorio kaltegarriekin.

Erregimena indartsu da, oso, eremu mediatikoan. Azken urteetan bere eragin esparrua mantendu eta, are gehiago, zabaldu nahi izan du, sare sozialetan bereziki. Bere nagusitasuna, esan behar da, ez da kasualitate baten fruitu izan, hamarkadatan zehar garatutako politika antidemokratikoen ondorio baizik, zeinen arabera, herri-komunikabideak ekonomikoki zigortu eta alegalitate egoeran mantentzen zituzten bitartean, Erregimenari leial zitzaizkion komunikabideak laguntza administratibo eta ekonomikoen bidez ureztatu baitituzte.

Prentsaren eremuan, esaterako, *Diario de Navarra* jasotzen zituen dirulaguntza publikoak eta publizitate instituzionala murriztu egin dira, baina inondik inora beharko zukeen moduan. Horren zergatia diru-laguntzak eta publizitate instituzionala banatzeko irizpideetan kokatzen da. Tamalez, irakurle kopuruaren eta bakoitzaren salmenten arabera banatzen dira, aintzat hartu gabe DNk nagusitasun hori lortu badu hamarkada luzeetako pribilegioen ondorioz izan dela. Egiari zor, oso higadura txikia eragin zaio Erregimenarentzat funtsezkoa den lanabes horri. Aitzitik, bestelakoa litzateke errealitatea Europako beste herrialde batzuetan aplikatzen diren irizpideak aplikatuko balira, ezen horietan aniztasun mediatikoa lagundu nahi baita, komunikabide txikiagoek publizitatea eta diru-laguntzak lortzeko erraztasun handiagoak dituzten bitartean.

Telebistaren eremuan antzeko zerbait gertatzen da ere, kasu honetan, NaTVrekin. Diru-laguntza gehienak kanal honek jasotzen ditu, gainon-

tzeko tokiko telebistak kinka larrian utziz. Aipagarria da Nafar Telebista (NaTB) desagertu izana: aldaketak bere egitasmoa gorpuzten eta kohesio-natzen zuen telebista kanala martxan jarri zuen, baina arrazoi ezberdinak direla medio, pikutara joan zen proiektua.

Irratigintzaren eremuan ere, bizi dugun panorama ez da sobera ezberdina. Estatu mailako irratiaren nagusitasuna erabatekoa da, eta azken horiek herrialdearentzat deskonexioak egiten dituzte.

Nafarroako Gobernuaren helburu bakarrak ETB herrialde osoan ikustea eta Euskalerrria Irratiari lizentzia ematea izan dira. Horiek bai, bete egin ditu, baina urrats horiek guztiz ez nahikoak dira. Eguzki Irratiari zuzenean lizentzia emateko saiakera egin da, atzera egin behar izan zuen, horiek soilik lehiaketa publikoen bidez bana daitezke eta.

Bukatzeko, sare sozialen eremuaz hitz egin behar. Hedabide gehienek beraien webgunea eta sare sozialetan profil propioak dituzte. Agian, azpimarratzekoa da *navarra.com* webgunea. Diario de Navarratik ateratako kazetariak dira, eta hainbat enpresariengatik laguntzaz hasi zen proiektua. *El Español* hedabidearekin akordioa du, eta Nafarroatik haragoko proiektua dauka. Une honetan Erregimenaren alderik eskuinekoenaren bozeramale lana betetzen du, eta Iruñerriko zein Iruñetik hegoalderako komunitate apolitizatuaren parte bat *busti* egiten du.

Laburbilduz, esan liteke legegintzaldiaren ikuspegitik urrats gutxi egin direla Erregimenaren amaraun komunikatiboa higitzeko; bai eta tresna propioak sortu eta sendotzeko ere.

I. Nafarroako Futbol Federazioa eta Osasuna

Askotan kirola eta politika nahastu behar ez direla esaten bazaigu ere, bista-koa da hori esaten dutenak direla biak gehien nahasten dituztenak, futbolaren kasuan bereziki, jendartearen arreta eta pasioa pizten dituen fenomeno honetaz baliatuz, beren proiektu politikoa elikatu nahi dutelako.

Zentzu horretan, ez da kasualitatea Erregimenaren indarrek historikoki Nafarroako futbola kontrolatu nahi izana, eta, modu zehatzagoan, Osasuna kontrolatu nahi izana.

Gaur egungo egoerari erreparatzen badiogu, Futbol Federazioan, adibidez, Erregimena (edo bere hurbilekoak) da (dira) nagusi. Normalean Federazio-ko hauteskundeetan abstentzioa oso zabala bada ere, 2016koetan parte hartzea historikoa izan zen (1287 boz). Hauteskunde hauek ponderatuak dira: klubek 24 biltzarkide hautatzen dituzte; jokalariek, 16; entrenatzaileek, 5; eta arbitroek, beste 5. Ordezkari horiek hautatzen dute lehendakaria, eta azkeneko hauteskundeetan Rafael Del Amo hautatu zuten, dirudenez, PSN-ren inguruko gizona. Osasunak Tuterako UPNren ingurukoa den Luis Virto babestu bazuen ere, beste hautagaia atera zen garaile. Aldaketaren eremuko indarrek, berriz, ez dute inoiz urrats esanguratsurik eman panorama mugitzeko (entrenatzaile eta jokalaria batzuen artean gogoia bada ere).

Osasunaren egoerari dagokionez, gaur egun ez da hain makurra. Ricardo Feliú-k *Navarrismo Pop* liburuan idatzi bezala, Erregimenak historikoki erabili du kluba, euskarari eta euskal nortasunari bizkar emanez *navarrismoa* (identitate *navarro-españolista*) hedatzeko; baina gauzak aldatzen ari dira.

Osasunaren Asanblada Orokorra hautatzeko antolatu ziren azken hauteskundeetan, bestelako Osasuna (eta akaso bestelako Nafarroa) nahi duten bazkide-konpromisario andana hautatu zuten, eta, gauzak horrela, gaur egun Osasunako zuzendaritza Erregimenaren hurbilekoa bada ere, ezin liteke gauza bera esan Osasunako Asanblada Orokorraz.

Horrek, klubaren nortasunarekin zerikusia duten aldaketa batzuei bidea zabaldu die. Adibidez: estatutuetan klubak euskararekiko duen konpromiso maila asko indartu da, eta ondorioz, AEKrekin hitzarmena sinatu da; langileek euskara klaseak jasotzen dituzte; El Sadar futbol zelaian megafonia elebiduna dago; atsedendietan, beti, euskal musika jartzen dute; klubak Euskaraldiarekiko atxikimendua erakutsi du; euskarazko perfilak zabaldu dituzte sare sozialetan... aldaketa txikiak dirudite, baina orain oso gutxira arte pentsaezinak ziren.

Noski, Erregimena ez da besoak gurutzaturik geratzen, eta aspaldi jazarriak ditu, Polizia Nazionalaren bidez, El Sadarrera jaisten diren herritar kontzientziatuenak. Ezagunak dira, adibidez, presoek banderolak sartzeko debekua edota oihu jakinak botatzeagatik egondako isunak.

2.4. BAZTERKERIA VS BERDINTASUNA

J. Patriarkatua *deseraikitze*ko borroka

Emakumeen eskubideen defentsaren eremutik eta feminismoaren borrokatik aspalditik seinalatu da Erregimena kapitalismo eta patriarkatuaren komenentziazko ezkontzaren berme nagusi gisa. Erregimenak bere aparatu guztiak martxan jarri izan ditu Nafarroako emakumeen aurka (hezkuntza, komunikabideak, epaileak, legeria...), eta ondorioz, emakumeek larrutik ordaindu dute hori, besteak beste, beraien autonomia ekonomikoan, partaidetza politikoan, ikusezintasunean edota oinarrizko eskubideen askotariko urraketetan.

Errealitate honen aurrean mugimendu feminista ez da, noski, besoak gurtzaturik geratu. Aniztasuna, horizontaltasuna eta autonomia bere identitatearen ikurtzat harturik, Erregimenari aurre egin dio, emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko marko kontzeptuala zabalduz, auzoetan eta herrietan antolatuz, ahalduntze feministarako esparru autonomoak sortuz, borroka ideologikoa landuz, emakumeei kaleak okupatzeko deia eginez edota bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jartzeko premia azpimarratuz.

Gauzak horrela, aldaketaren lehenengo fase honetan badira emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala lortzeko bidean emandako eta nabarmendu beharreko urratsak.

Adibidez, eremu instituzionaletik nabarmentzekoa da egon den ekoizpen normatiboa. LGBTBiren Berdintasunerako Foru Legea edota aurki onartuko den Emakume eta Gizonezkoen arteko Berdintasunaren Foru Legea horren adierazle dira, baina baita Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren egiturari buruzko Foru Dekretua ere, baliabide eta aurrekontu gehiago ematez gain bere funtzioen zeharkakotasuna indartu duena. Udalen eremutik ere dezenteko lana egin da, besteak beste gaiari zentralitatea emanez edota udal ordenantza berriak lantzen hasiz. Eta azkenik, berdintasuna eta genero ikuspegia orotariko legeetan txertatzen hasiak direla esan behar da: Zientzia eta Teknologiaren Foru Legean, Kontratu Publikoen Foru Legean...

Ekoizpen normatibotik kanpo baina eremu instituzionalean jarraituz, Skolae hezkidetza programa integrala eta aitzindaria nabarmendu behar dugu. Ikusi besterik ez dago noraino asaldatu diren Erregimenaren barruko indar sozial atzerakoiak.

Partaidetza politiko-instituzionalari dagokionez, Nafarroako Gobernu kideen %55 emakumea dela azpimarratzeko datua da. Txanponaren beste aldea udaletan legoke, zinegotzi guztien %35,7 baino ez baita emakume (eta okerragoa oraindik, alkateen %22).

Zorionez, gauzen egoera aldatzen jarraitzeko mugimendu feminista indartsua daukagu egun. Kuantitatiboki zein kualitatiboki erraldoiak izan diren mobilizazioek (Sanferminetakoa, Greba feminista edota Manada Auziko epaiaren aurka egondakoa) mugimendu feministaren kohesioa eta aitortza politikoa ekarri dituzte. Horrela, eztanda moduko bat suertatu da azken urte hauetan, eta elkarlanerako esparru aunitz sortu dira: Iruñerriko mugimendu feministen topaketa, Emakume Abertzaleen VII Topaketak, Emakumeen Munduko Martxaren Jardunaldiak... eta nola ez, azkenengo bi urte hauetan Greba Feministaren inguruan martxan jarri diren tokiko asanbladak.

K. Hezkuntza sistema

Hezkuntza sistema kontrolatzea funtsezkoa da bere hegemonia erreproduzitu nahi duen edozein mugimendurentzat, eta hala izan da Nafarroan Erregimenarentzat ere. Alta, ez zaio beti nahi bezain erraza izan, aurrean, bestelako hezkuntza proiektu baten alde egiten zuen komunitate euskaltzale antolatu eta konprometitu bat izan duelako. Ondorioz, Nafarroan dugun hezkuntza sistema, bere adierarik zabalenean, dikotomia sakonean bizi eta garatu da azken 40 urteetan.

Alde batean Erregimenaren indarrak egon dira, gobernutik, eliteen interesen zerbitzura sortutako hezkuntza sistema espainiar, patriarkal, klasista eta atzerakoi bat eraikiz. Euskara zokoratu nahi izan dute, eta Vascuence Legea baliatuz halaxe egin dute, guztiz, indar korrelazioa aldekoago zuten Nafarroako zonaldean, Erriberan hain zuzen (aintzat hartu behar da 2006 urtera arte zonalde “ez-euskalduneko” ikastolak legetik kanpo bizi izan direla). Beren eredu *navarro-españolista* inposatzeko irakasten ziren edukiak ere goitik behera kontrolatu nahi izan dituzte (ezaguna da, adibidez, “Euskal Herria” hitza darabilten testuliburuak jazartzeko Erregimenaren indarren obsesioa). Eta horrekin aski ez eta Estatutik, oinarrizko legediaren bidez, laguntza besterik ez dute jaso beren eredu atzerakoiaren inplementazioan (LOMCE kasu).

Baina parean euskal hezkuntza komunitatea izan dute, bere zailtasun guztiekin, oldarraldiaren aurrean erresistentzia lana eginez eta berdintasunean nola askatasunean oinarritutako hezkuntza sistema eraikiz.

Azken hiru urteetan hezkuntza iraultzarik suertatu ez bada ere, aldaketa garrantzitsu batzuk suertatu dira. Garrantzitsuena: aldaketa instituzionalak, hezkuntza eremuan erresistentziatik eraikuntzara igarotzeko baldintzak jarri ditu. Orain Erregimenaren indarrak dira erresistentzia fasean kokatzen direnak, Skolae programarekin, euskarazko haur eskolekin edota D eredia Erriberara zabaltzearekin ikusi dugun bezala. Sakontzen jarraitu beharra dago, eta aldaketaren bigarren legegintzaldi bat egonez gero, egiturazko aldaketei ekiteko aukera legoke.

L. Eliza katolikoa eta Opus Dei

Gauza jakina denez, Nafarroan Eliza katolikoak 1936ko Estatu kolpe faxista bedeinkatu eta lagundu zuen, baita ondotik etorri zen 40 urteko diktadura militar basatia ere. Ondorenean, trantsizio garaian, “garai berriei” egokitzten jakin zuen bere burua eta demokraten klubera batu zen inolako barne aldaketarik egin gabe. Diktadurako beste hainbat aparatatu bezala (armada, segurtasun indarrak, epaileak...) gauean frankista oheratu eta goizean goiz demokrata esnatu zen Eliza.

Hori bai, publikoki erreforma frankistaren alde lerrotzen zen bitartean, pribatuan eta sekretuan diktadura pean lortutako pribilegio eta eragin guzueen mantentzea negoziatu zuen (hezkuntzan, gizarte asistentzian, osasunean, fiskalitatean...), gaur egun arte ia osoki mantendu giten direnak.

Horren parean, aitortu beharra dago trantsizio garaian eta ondorengo urteetan oinarritzko komunitate kristauek eta liberazioaren elizak pisu garrantzitsua izan zutela Nafarroako Elizan (inoiz nagusitasunik izan ez badute ere), baina errealtatea gaur egun oso bestelakoa da.

Fernando Sebastianen agintalditik (1993-2007) eta Fernando Pérezeren agintaldian zehar (2007-) Elizaren bilakaera Nafarroan guztiz atzerakoa izan da, eta egun sobera argia da Eliza katolikoa Erregimenaren beste zutabe bat baino ez dela.

Opus Dei-ri dagokionez, ez da kasualitatea 50eko hamarkadako Nafarroa klerikal eta atzerakoi hura hautatu izana hemen bere proiektu izarretariko bat garatzeko: Unibertsitatea; Erregimenaren eliteak formatu dituen zentroa. Orduz geroztik, gehienetan ixilik eta zarata mediatiko handirik egin gabe, bere eragin eremua handituz eta handituz joan da: PIUNA (ikerketa unibertsitarioa), IESE (Enpresako goi ikasketen institutua), CIMA (ikerketa medikua), ICT (Zientzia eta teknologia institutua), EDUNSA editoriala, Unibertsitate museoa...

Azken urteetan Eliza katolikoak duen eragin erlijioso eta ideologikoa nabarmen murriztu bada ere (Nafarroa da Estatuan fededunak baino fedegabe gehiago dituen lurraldea), oraindik orain nabarmentzekoa da, eta are gehiago botere politiko, ekonomiko eta sozialaren goi arduradunetan. Eta gainera, eragiteko ahalmenean galera nabarmena eduki arren, botere politikoak (Nafar Gobernua nagusiki) orotariko laguntza eta exentzioak ematen jarraitu du. Egiari zor, Gobernu berriarekin hori aldatzen hasi da, baina oso modu ahulean.

Elizak oro har eta Opus Deik zehazki ezezagun handiak izaten jarraitzen dute. Bere boterearen eta eragin-sareen ezkutatzea bere "bertute" handienetarikoa izan da, eta jarraitzen du izaten.

Eremu sozialetik immatrikulazioen aurka egin den lan nekaezinak Elizaren miseria morala eta hipokrisia biluzten lagundu du, bere boterea eremu horretan deslegitimatzen lagunduz.

M. Politika artistikoak (edo kultura)

Artea (kultura) ez da tradizionalki gure diagnostikoetan kokatzen dugun elementu politikoa. Urrun geratzen da gure eguneroko politikatik, eta horrek diagnostiko honetan arazo bat dakar. Esaterako, noiz hitz egin da, modu ordenatu batean, azkeneko aldiz artelan bati buruz mugimendu sozialen, sindikatuen edota alderdien asanbladaren batean? Zergatik geratu behar dira artelanei buruzko iritziak prentsaren iruzkinetara zokoratuta? Ez gara jabetzen literaturaren, zinemaren, ikusizko artearen, musikaren, kritika kokatu bat sistematikoki egiten ez denetik mugimendu eraldatzaileek zentraltasuna galdu dutela?

Ezkerreko indar gisa, badakigu zerga-politikan, memoria historikoan, hizkuntza-eskubideetan, garraio-politikan, zabor-politikan eta parte-

-hartzeko politiketan zer nahi dugun, non egon nahiko genukeen. Badakigu eremu horietan erreformismo hutsa ala benetako eraldaketa ere zer diren. Baina artean?

Galdera horri ezkerreko ikuspegi batetik erantzuteko, interesgarria izan liteke gure buruari galdetzea zein den kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko alde nagusia. Erantzun azkar bat haxe izan liteke: kapitalismoak mundua antolatzeke ekonomia jartzen du zentroan; sozialismoak berriz, mundua eraldatzeko politika jartzen du zentroan. Eta beraz, ekonomia zentroan egon ala politika zentroan egon, halako politikak sustatzen ariko gara, baita artearen eremuan ere.

Ezagutzen dugu zer den artea kapitalismoan. Artea (kultura), inbertsio bat besterik ez da, ekonomia dagoelako zentroan. Eta ekonomian zenbatu egiten da. Neurtu egiten da ez artearen hizkuntzatik, baizik eta zenbakien hizkuntzatik. Eta zenbakiok, noski, artelanekin inolako zerikusirik ez duten kontuak neurtzeko erabiltzen dira: zenbat jendeek bisitatu duen Nafarroako Museoa ala Gaiarre antzokia. Zenbat jende hartu duen ostatu Iruñerriko ostalaritza eskaintzan Aste Santuan edota Sanferminetan. Zenbat diru utzi duen turista bakoitzak joan berri den udan. Zee alde dagoen diru horren eta bestearen artean. Kapitalismoak zenbakien hizkuntza hitz egiten du, eta tamalez, legegintzaldi honetan ere, hizkuntza hori erabili da hainbatetan.

Baliteke eremu batzuetan norabide aldaketa eman izana, baina jauzirik behintzat ez da egon. Hasteko, ez delako erakundeetatik lagundu nahi zen arteaz gogoeta sakonik egin. Ez da zentroan eztabaida jarri. Formetan aldatuak egon dira eta, esaterako udal politiketan, aniztasun handiagoa egon da eskaintzetan. Baina aniztasun horrek, berriz ere, merkatu berriagoekin eduki du lotura. Funtsean, UPN-PSNren zikloa ez delako gai Mendebaldeko Europako edozein hiritan erakundeek izan ohi duten irekitasun-politikak abian jartzeko. Baina, ezin gara hiri horietako gure burkideekiko entzungor geratu. Badakigu Bartzelona, Bordele, Madril, Okzitaniako Tolosa edota Amsterdameko irekitasun-politikek edota aniztasunaren aldeko haien politika kulturek ere kapitalismoa zurrizteko balio dutela. Eta, beraz, UPN-PSNren ziklotik *Bartzelona eredu*a imitatuko duen zerbaitera joateak ez du jende xeheak artearekin duen harremana, artistek Nafarroan garatuko dituzten eztabaidak eta obrak, ezertan hobetuko.

Prest gaude politika zentroan jarritz arteaz jarduten hasteko?

N. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua

Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak azken urte luzeetan ez du ia aldaketarik egin, eta horrela, egungo gazteriak duen parte hartzeko, antolatzeko, elkartzeko... moduetara ez da egokitu (elkartegintzan eta asoziazionismorako ohitura aldaketetan, esate baterako).

Azken urteetan gazte dekretu baten osaeran lan egin du kontseiluak. Zailtasun handiak ditu gazteriarengana heltzeko; are gehiago, gazteriaren gehiengoak Kontseilua existitzen denik ere ez daki. Parte-hartzea erraztu eta zabalduko dela ematen du, baina muga handiak ditu oraindik ere eta oso urrun dago gazte politikak transbertsal egitetik. Eremu horretan Erregimenaren indarren papera garrantzitsua da.

3. Deseraikuntzaren norabidean hainbat ondorio estrategiko

3.1. ERREGIMEN BERRIA BEHAR DUGU

Nafarroan erregimena aipatzen dugunean ez gara UPNri buruz ari, ezta Parlamentuan dagoen aritmetikaz ere, sektore, klase eta eragile sozialen arteko harremanen kondentsazioaz baizik. Foru Hobekuntza da sinbolizatzen duen marko legala, baina 78ko konstituzioa da joko arau nagusiak biltzen dituena. Espainiar Erresumarekiko menpekotasuna eta elite kontserbadore espainiarzaleen nagusitasunaren kondentsazioa da, beren aldeko egiturazko abantailak kristalizatzen dituena, beren egitasmu berenkoa jendarte zerumuga bilakatzen duena. Eta erregimena ere bada kristalizazio hori ordezkatzeko eta une berean berrekoizten duen nafartasunaren eredu *navarro-españolista* (*Navarra foral y españolarena*).

Hortaz, Erregimenaren ordezkapen prozesuan sakontzeak argitasun estrategikoa eskatzen du. Fase politiko honi ezarri dizkiogun helburuek harreman zuzena dute Erregimenaren deseraikitze prozesuarekin. Eta zeintzuk dira helburu horiek? Bada, Nafarroan plano instituzional zein ideologikoan oinarri demokratikoak ezarri eta, horrekin batera, eskubide sozial eta nazionalak bermatuko dituen sistema bat eraikitzea, burujabetza prozesua muturrera eramanez ahal izateko lehen estadio gisa.

3.2. BIZI DUGUN TESTUINGURU HISTORIKOAREN KONTZIENTZIA DUTEN HERRITAR AKTIBOAK

Guk geure estatua eraiki nahi dugu, aspaldi erabaki genuelako herri gisako askapena dela bertan klase borroka eta jendarte emantzipazioak hartzen duten forma, eta eraiki nahi dugun estatuaren ikuspegitik osatu nahi dugu erantzuna, bestela esanda, burujabetza-prozesuaren ikuspegitik.

Autoantolaketa, kontzientzia kolektiboa eta borroka eginda sortu dugu arrakala. Bide berean, ez da etorkizun askerik izango, ez da Erregimenaren ordezkapen prozesurik emango hots, Nafarroako herritarren kontzientzia hartze eta aktibazio iraunkorrik gabe.

3.3. INSTITUZIO DEMOKRATIKOEN ETA HERRI MUGIMENDUEN ARTEKO TENTSIO SORTZAILEA

Aldaketa jendartetik iritsi da instituzioetara. Aldaketa diogularik, beraz, ez gara instituzioetan eman den gehiengo berriaren eraikuntzaz ari, soilik. Finean, indar espaniartzale atzerakoien ahultzea eta indar aurrerakoien indartzearen ondorioa eta une berean, sintoma da. Indar harremanen mutazioa gertatu da Nafarroan eta ez da nolana hikoia izan. Espainiak duela urte batzuk lotuagoa zuen Nafarroa orain baino. Nafarroak Espainiaren menpe jarraitzen du, eta egitura sozioekonomikoak eliteen menpe jarraitzen dute, jakina, baina aldaketa sakonak gertatzen ari dira, oso sakonak. Erregimena urratzen duten aldaketak.

Herri mugimenduaren eta instituzio “ireki eta demokratizatzaileen” arteko hartu emana zentzu eraikitzailean kokatu beharrean gaude. Erritmoen eta ikusmoldeen artean sortzen diren arazoak, García Linera boliviarrak dioen moduan, sormen tentsio bilakatuz. Bi esparruen arteko dialektika prozesu demokratizatzailean aurrera egiteko funtsezkoa delako.

3.4. NORABIDEAZ ARITU GARA. ABIADURA BIZKORTZEAREN GARRANTZIA

Historian zehar, aldaketa politiko eta sozial esanguratsuak gertatu direnean, uneko baldintzak baliatzen jakin direlako izan da. Garrantzitsua da ulertzea baldintzak ez direla mugagabeak. Kapitalismoak eta berau ordezkatzeko duten eragile zein sektoreek aparteko abilezia erakutsi dutela sortu zaizkien pitzaduretatik onbideratzeko.

Hortaz, Nafarroan Erregimena ahultzen eta helburu dugun Nafarroa berri-
ra gerturatzeko abiadura bizkortu beharrean gaude. Prozesu sortzaile ezberdinen arteko sinergiekin erregai berria ekarriko duten ziurtasun osoa dugu. Ahaztu gabe, Nafarroako instituzio nagusiak herriaren beharrak lehenesten dituztela bermatzen jarraitzeak aukerak biderkatzen dituela. Beste modu batera esanda, herriaren esku dauden botere-guneekiko proportzionala izaten ahal da Erregimenaren deseraikuntza prozesua.

3.5. APIRILAK 28 ETA MAIATZAK 26. ESTRATEGIKOKI ERAGITEKO KOLPEAK

Koiuntura honetan urrats hurbilenek eragin estrategikoa izan dezakete. Erregimenak mundu mailan eskubideen galerari ateak ireki dizkion korronte ultra-eskuindarra nafar instituzioak berreskuratzeko erabili nahi du.

Ekarpen oparoa egin diezaiokegu Europako zein munduko ezkerri Nafarroa eskubideen esparru eta gotorleku bilakatuz. Han hemenka dabilen inboluzio giroari bizkar eman eta herritarren beharren alde instituzioak erabiliz. Ikusmolde aurrerakoi eta ezkertiarra duten herritar eta sektore zabalei zero muga partekatu bat iradoki diezaiegun. Apirilaren 28an eta maiatzaren 26ean Erregimenari egin diogun arrakala EH Bilduren bitartez handitu dezagun.



D.L.: 55-314-2019